

Goienkaria

ASTELEHENKO

Goiena 10
Kommunikazio Zehitzak URTE

www.goiena.net TOKIKOM

2010eko maiatzaren 24a > Astelehenetik > VII. urtea > 278. zenbakia > 1,10 euro

"Nahiago dugu Murtziako edo Ukrainako produktuak erosi, baserrietakoak baino"



Gurutz Garmendia
Baserriko produktuen saltzailea > 05

G2a

Aretxabaletako memoria historikoa > 29

ARAMAIO

Patxi Uribarren euskaltzain osoaren sarrera ekitaldia barikuan > 20

GOITIBEHERRAK

'La gondola del amor' jaun eta jabe Bergaran eta Oñatin > 21

KULTURA

Punk festibala Errekaldeko jaietako bariku gauean > 30

36KO GERRA > EKITALDIA

Egiaren batzordea osatzea eskatu dute

ELGETA 'Gerra zibila Euskal Herrian: Ibilbide tematikoa Intxortaren magalean', inauguratuta

HUNKIGARRIA Espaloian egindako irekiera ekitaldiak oroitzapen gogorrak ekarri zituen > 04

JENDARTEA > AISIALDIA

Aspaldiko jolasak bueltan

Txapa, ziba eta kanikak umeen eskuetan ostera > 02

ELKARTASUNA > DEIALDIA

Jose Luis Elkororen alde, martxa Palentziara

Ekainaren 6rako egin dute deialdia Bergaran sortu berri duten Jose Luis Elkoro Libre plataformako kideek. Alkate ohiari elkartasuna adieraztea adostu dute, herria atzean dagoela sentitu dezan; baina azken helburua da Jose Luis Elkoro kartzelatik ateratzeko biderik motzena topatzeara. Eguenean egin zuten lehen bilera eta Jose Luisen lagun askok esku hartu zuten, erretiratu askok. Bigarren bilera astean izango da: egunearan, 19:00etan, udaletxearen > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07
Elkarrikzeta > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-27
Kultura > 29-33
Sailkatuak > 34-35
Denbora-pasak > 36
Telebista-Irratia > 37
Berri-zakua > 38-39



PAZKOAK Egunez eta kalean egin dute festa gehienbat berargararrek.

JOSETXO ARANTZABAL

Elhuyar-en panpina eta jokua opari. Nahi?

Zoaz 6. orrialdera



Jaien bigarren txanpan, gaur Koadrilen Eguna

Temperatura altuak eta kaleko giroa izan dira Pazkoetako lehen txanpako ezaugarri nagusiak. Gaur, Koadrilen Eguna da Bergaran; blusak jantzi eta festa giroan murgiltzeko aukera paregabeara. 750 lagunek eman dute izena herri bazkarirako. Biher, nagusien eta umeen txanda izango da eta Bitorianatxoren igoerarekin agurtuko dituzte jaiak. > 12-14

JENDARTEA > AISIALDIA

Txapa, ziba eta kanikak umeen eskuetara itzuli dira ostera

EKIMEN ASKO Erakundeek, ikastetxeek eta elkarteeek lanean dihardute betiko jolasak berreskuratzeko; egunotan horrelako lau ekimen egon dira bailaran

IKASLEEN TOPAKETA Egubakoitzean, Debagoieneko eskoletako 275 bat umek parte hartu zuten Eskoriatzan egindako joko eta jolas tradizionalen IX. topaketan

HELBURU HIRUKOITZA Jolasak ez ahazteaz gain, gurasoek haurrei horiek transmititu ditzaten eta talde izaera berreskuratzea bilatzen dute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Gaur egungo jolas gehienak teknologiarekin lotuta daude eta ume askok ez dakite gustura egoten esku artean bideo joko edo kontsolarik ez badute. Orduak ematen dituzte mugimendu handirik eskatzen ez duten jokoekin. Horien ohiturak aldatzeko beharra ikusi dute eta lehengo jolasak berreskuratzeko lan egiten ari dira bailaran.

Gezurra badirudi ere, azken egunotan lau herrian egin dira horrelakoak Debagoienean. Egubakoitzean, Goi-eskolako joko eta jolas tradizionalen IX. Topaketa egin zuten Eskoriatzako kiroldegin. Bailarako 275 ume inguru izan ziren han. Zapatu goizean, berriz, Arrasateko Santa Marinako ludotekan ziba, txapa, kanika, kromo eta txingokarekin ederto pasa zuten. Oñatin, berriz, Txantxiku-joko txapelketa izan zuten gazteek arratsaldean. Bergara ez zen gutxiago izan eta jaien harira, aspaldiko jolasak antolatu zituen Jardunek, domeka goizean.

TRANSMISIOA

Egunotako gutxi balitz, *Kataia eten barik* egitarauaren harira, Eskoriatzan ere jolas tradizionalen jaialdia egin zuten apirlaren amaieran. Kultura teknikari Arantxa Unzueta gogorarazi du aurten transmisioa landu zutela ekimen multzo horren barruan, eta jolasena familia giroan egiteko jai ezin hobea zela iruditu zitzaiela.

Unzuetaren arabera, "jaio garenetik ikasten dugu, baina hazten garenean, ikasi duguna ere irakatsi egiten dugu. Horren harira, egitaraua antolatzen gentilzala, ohartu ginen hainbat gauza galtzen ari direla; tartean, ondo transmititu ez direlako edo gizartea aldatu delako". Horri buelta eman nahian, joskintza edo amamak sukaldean egindako errezeten gainekeko tailerrak eta jolas tradizionalen jaialdia egin zituzten. Azken horren harira, nabarmendu du egungo umeek beste joko mota batzuk dituzten arren, ohartu behar dira ezer behar ez duten hainbat joko ere badaudela.

Bergarako Jarduneko Nerea Mendizabal bat dator azken horrekin: "Ematen du guztiok antzerako bidea hartu dugula; hain justu ere, betiko jolasak berreskuratzearena. Horri buel-



> ZIBA Jolas horretarako jolaskide bakoitzak ziba eta soka bana behar ditu. Zibak dantza egin dezan, soka bat lotu behar diogu horri, eta jarraian, indarrez lurrera botako dugu. Kontuan izan behar dugu ziba dantzatzeko lurra gogorra izan behar duela.



> TXINGOKA. Lurrean laukizuzen handia margotuko dugu eta hori hainbat zatitan banatu. Laukitxo bakoitzean zenbaki bat jarriko dugu. Harria batera bota eta oin batekin saltoka ibilbide guztia egin behar dugu, harria duen laukitxo gainetik pasa barik.

ta eman behar zaio; umeei erakutsi behar diegu diru gutxiagorekin jolastu daitzekeela".

TALDE IZERA BERRESKURATU

Arrasateko Txatxilipurdin ere lanean dihardute transmisioarekin. 2008ko bukaeran hizkuntza transmisioaren gainekeko proiektua martxan jarri zutenean, hainbat ekimen egin dituzte ludoteketan, familiak eta umeak elkarlanean horietan ibili daitezzen; eta pasa berri den asteburuan aintzako jolasak kalera aterra nahi izan zituzten. Egoitz Larrañagaren esanetan, "kalean presente ez dauden jolasak dira; gurasoek seme-alabei transmiti-

tzeko aukera izateaz gain, jolas terakoan talde izaera berreskutatu nahi izan da ostera ere".

EZ ZEKITEN TXAPETARA JOLASTEN

Unzuetak ere elkarlana nabarmendu nahi izan du. Gogorazi du jaialdian txapen tailerrean egin zela eta harrituta geratu zela inork ez zekielako jolasten: "EZ zituzten, gainera, ikusita. Umeak zorauta ibili ziren jolasean. Tiragoman, berriz, guraso bat egon zen umeei erakusten zelan egin behar zen. Horretarako, zapatu zaharrak ekarri zituen larru ateratzeko eta baita makila txikiak ere". Jaialdiak oso harrera ona izan zuen eta errepiatzeko asmoan daude.



> TXAPAK. Lehenik eta behin, botiletako txapak batuko ditugu eta nahi izanez gero, horiek apaindu. Jarraian, lasterketa egiteko ibilbide bat marratzuko dugu lurrean. Txapa hortik ateratzen bada, berriz hasierara jo beharko dugu. Helmugara lehena iristen dena irabazlea da.



HARIEN JOLASAK. Hari zati bat hartuko dugu eta hori lotuko dugu. Jarraian, eskuekin nahi dugun forma emango diogu. Aurkariak, atzamarrak erabiliz, haria hartu eta beste irudi edo forma bat sortu beharko du bere eskuetan.

NINTENDO ETA FUTBOLA

Bestalde, egubakoitzean Eskoriatzan egin zituzten topaketetan ere ezin hobeto ibili ziren Debagoieneko eskoletako Lehen Hezkuntzako laugarren mailako neska-mutikoak.

Goizean, taldeak egin eta hamar jolasez osatutako bi gune gertatu zituzten; tartean, goma, soka-saltoa, haria, kromoak eta toka zeuden. Horietan antolatzale lanetan ibilitako Beñardo Alberdik gogorarazi du orain dela hamar urte hasizirela topaketak antolatzen, eta horien helburua dela jolas horiek ez ahaztea. Alberdiren esanetan, "Nintendoez eta futbolaz gain, betiko jolasak ere badaudela

gogorarazi nahi diegu umeei. Txikitau horiek jolasten genuen, eta baita gure gurasoek eta aitonamonek ere".

ÓNATIN, TXANTXIKU-JOKOA

Onatin ere behin baino gehiago tan antolatu dituzte gisa honetako jolasak gaztelekuak: Txantxiku-jokoak, esaterako. Garai batean Euskal Herriko taberna eta txoko guztietan aurki genezakeen joko hori ere galtzen joan da eta orain berreskuratzeko ahaleginetan dabiltsa. Gazteleku Kristina Valenen arabera, "barreak botatzeko, punteria frogatzeko eta lehia giroa sortzeko paregabea da Txantxiku-jokoak".

HIPOTEKA ZORUGABEA ETA GASTUGABEA



Ekarri zeure hipoteka kutxara.

Gastuak ordainduko dizkizugu, 1.000 €raino
eta Euribor + %0,40rainoko kuota ahal izango duzu lortu.

Eskura ezazu eskaintza honen baldintzei buruzko informazioa.

Baietz bizitza arrosa kolorez ikusi.

zer nahi duzu bihar?



> **PUNK JAIALDIA**
Oñatiko Errekalde auzoko jaietan, bost taldek jo zuten egubakoitzean > **30**



> **EMON**
Bergarako taldeak jaietan aurkeztu zuen bere lan berria, txosnagunean > **31**



> **BERGARA HIRIA**
Lehiaketara aurkeztutako 40 lan onenak Aroztegi aretoan daude ikusgai > **32**

36KO GERRA > DOKUMENTALA

Aretxabaletako memoria historikoa berreskuratz

ESPAINIAGO GERRA Memoria historikoa azaleratzeko, 36 eta 37ko gerran Aretxabaletan gertatutakoa jasoko du dokumental batek

GRABAKETAK Arrasaten bi pasarte filmatu dituzte; Intxortako trintxeretan eszena bat grabatzea ere gura dute

MAIDER ARREGI > ARETXABAleta
Guardia Zibilak eta militarrek Arrasateko Herriko Plaza eta Iturriozt kalea hartu zituzten. Sekulako ikusmin sortu zen herrian: dozenaka bizilagunek *Gerra zibila Aretxabaletan* dokumentala nola filmatzen zen ikusteko aukeera izan zuten pasa den domekan. "Isilik, kamera, ekin!" zuzendarriaren agindupean, Espainiako gerrako bi eszena grabatu zituen 20 laguneko lan taldeak. "Aretxabaletan 1936 eta 37an zer gertatu zen kontatzea du helburu dokumentalak", azaldu digu Juan Ramon Garai, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak. Arteman Komunikazio enpresa eta Intxorta taldearen arteko elkarlana da. Gorka Etxabe, Artemaneko arduradunaren hitzetan, "asmoa da dauzkagun fikzio grabaketa historikoekin eta garai hartako lekuoen elkarrizketekin doku-

mentala osatzea. Argazkiak eta elementu grafikoak ere erabili ko ditugu".

FRANKISTAK ARETXABALETAN
Gerra eta errepresioaren ondorioz, Aretxabaletan urtetan gordea egon den historia azaleratu nahi dute. "Artemanekoekin bat egin eta letretatik irudira pasa gara. Benetan gertatutako historiaren bi pasarte grabatu ditugu. 1936an, urria eta azaroan, faxistek Aretxabaletan sartu eta pertsona zibilak atxilotu zituzten. Tartean, Bedoñako Elorrixa baserriko Dionisio Uribesalgo baserritarra. Orduan, Bedoña Aretxabaleta zen eta pentsu genuen gertaera hori jasotzea dokumentalean. Arrasateko udaletxean zeuden ziegetara eraman zituzten atxilotuak, hori ere irudikatu dugu", azaldu digu Garaik.

Grabaketetako bat Bidasoro baserrian egin dute. Izan ere, Elorrixa baseria guztiz berrituta dago egun; aldiz, Bidasorok orain dela 100 urte zeukan itxura berbera dauka. "Ama haurdun zegoela eta bederatzi seme-alaben aurrean atxilotu zuten aita". Oso ondo gogoratzen du Jose Luis Uribesalgok 1936an gertatu zena baserrian: "Lau urte t'erdi nituen baina guztia gogoratzen dut. Amak askotan kontatzen zidan eta, 18 urterekin, gertatutako guztia oroitu nuen bat-batean". Oso gogorra izan zela azaldu digu:

"Kartzelan beldur handia pasa zuen aitak eta konfesatzen ere ez zioten utzi. Sorpresaz azaldu ziren frankistak eta aita eraman zuten ondoren fusilatzeko". Kandida, Dionisio Uribesalgoren alaba, astoa hartu eta esnea saltzea Arrasatera jaisten zen. Herrian zegoela, bere aita preso, lotuta



Arrasateko filmaketan parte hartu zuten gazte batzuk, gustura. Jantziak eta materiala, Madrilen alokatutakoak dira. ARTEMAN



1939ko Ford kamioi gainean, Osoron Uribesalgoren paperean. Autoa Maritxutako Komisiñuak erabiltzen duena da. ARTEMAN

ikusi zuen. Eszena hori ere jasotzen du dokumentalak. Lucio Oteizaren adierazpenak oso hunkigariak dira. Oraindik ere malakoak ateratzen zaizkio hildako laguna gogoratzen duenean. Intxorta inguruan, bala galdu batek bete betean eman zion lagunari, eta Lucioaren besoetan hilida erori zen.

GRABAKETAK IBARREAN
Mikel Arregi Arrasateko gaztetxeko kidearendako sekulako esperientzia izan da: "Gaztetxeko 17 lagun batu ginen. Jolas baten moduan hartu genuen eta primearan pasa genuen". Arregik fran-

kisten jeneral nagusiaren pape-ra egin du. "Sekula ez nuen pentsatuko nire burua horrelako jantzi baten barruan ikusiko nuenik; bitxia izan da rol hori betetzea, esperientzia polita benetan". 4 eta 13 urte bitarteko bederatzi gaztetxo arrasatearrek ere hartu dute parte. Jantziak eta gerra materiala Madrilen alokatuta ekarri dituzte. Elgetan zabaldu den erakusketan dauden fusilak eta pistolak ere erabili dituzte. Gainera, Intxortan egin berri dituzten trintxerak aprobetxatuz, Murun gertatutako pasartea ere filmatuko dutela azaldu digu Etxabek.

Dionisio Uribesalgoren pape-ra, Osoron, Jon Zubiaga arrasatearrak egin du. "Erronka bat izan da; lehen aldia da horrelako paper gordina egiten dudana. Hurbileko historia da eta generazio berriei jakinarazteko proiektu polita. Oraindik erantzukizunak airean daude gainera. Joxe Uribesalgoren begiradapean, errespetu handiz sartu naiz Dionisioren paperean".

Dokumentala urri aldera aurkeztuko dute eta DVD formatuan ere zenbait kopia kaleratuko dituzte. Egindako lana aprobetxatuta, liburu bat ere kaleratuko dute Aretxabaletan.

ESANAK

"Ama haurdun zegoela eta bederatzi seme-alaben aurrean, aita indarrez eraman zuten frankistek"

Joxe Uribesalgo > Lekukoa

"Hurbileko historia da eta generazio berriei jakinarazteko, azaleratzeko, proiektu polita da"

Jon Zubiaga > Aktorea



Gurutz Garmendia, Bergaran duen denda.

MIREIA BIKUÑA

Gurutz Garmendia > Baserriko produktuen saltzailea

"Nahiago dugu Murtziako edo Ukrainako produktuak erosi, baserrietakoak baino"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Garmendia Ardoak dendako komertzial Gurutz Garmendiak baserriaren egoerari buruz egingo du berba zapatuan Bergarako Pol Pol tabernan, 12:00etan.

Baserriaren jatorriari eta egungo egoerari buruzko hitzaldia egingo duzu.

Bai, hala da. Alde batetik, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jatorriari buruz egingo dut berba. Power Point batekin 120 diapositiba erakutsiko ditut, jatorriari buruz. Kontatuko dut nekazaritzeta eta abeltzaintza nola heldu zen gure lurralderra. Era berean, erakutsiko dut nekazaritzaz askok uste dutena baino askoz zaharragoa dela. Guk 2.000 urteko datuak ditugu, baina orain dela 50.000 urtetik garatzen joan den lanbidea dela azalduko dut. Ez dago data zehatzik, baina ikerketek erakusten dute errromerrak heldu aurretik nahiko garrantzitsua da norberak gas-tatzen duen dirua hemen geratzea. Baserritarra, bere produktuak saltzarren jasotzen duen diruarekin, jatetxe batera afaltzea edo tabernara joango da.

dituen kultura galtzeko arriskuan dago eta belaunaldi gaztek ez dute ezagutuko. Horren kontra egin behar dugu borroka.

Zer egin dezakegu baserri giroa ez desagertzeo?

Lan handia dugu aurretik. Importanteena da baserriko produktuak erosten hastea. Merkatitzagune handietara joateko ohitura dugu, eta berdin zaigu Murtziako edo Ukrainako frutak eta barazkiak erostea. Agian, gure etxearren ondoan kalitate oneko baserriko produktuak egiten dituzte. Hortik hasi behar dugu.

Gainera, Euskal Herritik kanporako produktuak erosten baditugu, dirua kanpora joango da. Garrantzitsua da norberak gas-tatzen duen dirua hemen geratzea. Baserritarra, bere produktuak saltzarren jasotzen duen diruarekin, jatetxe batera afaltzea edo tabernara joango da.

"Duda barik, gainbehera dator baserri mundua, etxeko produktuak erosten hasi behar dugu"

"Baserritarrek bizi duten egoeraren aurrean erakunde gehienek duten jarrera lotsagarria da"

Bestalde, baserritarrei zuze-nean erosten dizkiegun produktuak askoz osasuntsuagoak dira. Merkatitzaguneetan erosten ditugun tomateak edo arrautzak ez dira baserrikoak bezain gozo-ak eta osasuntsuak. Etxeko ogia, piperrak, esparragoak, marmelada, ardoa, ukenduak...

Azkenik, hemengo produktuak kontsumitz gero, inguru-mena babesten dugu, garraiorik ez dugulako behar.

Erosleek baserritarrekin har-tu-eman zuzena izatea importantea da?

Bai. Baserritarrei zuzenean edo baserriko produktuak sal-tzen dituzten dendetan eros dai-tezke. Horiek dira baserritarrei laguntzeko bideak.

Erakundeek ze jarrera dute egoera honen aurrean?

Lotsagarria. Erakunde gehienek merkatitzagune handieei ematen dizkiete dirulaguntzak. Baserritarra dauden egoeran egotearekin errudun nagusiak era-kundeak dira, duda barik. Ez dituzte baserriko produktuak baloratzen. Ondorioz, ez dute neurririk hartzen.

Nortzuk gonbidatuko zenituzke hitzaldira?

Batez ere, euskal kultura eta baserriko giroa eta bizimodu-a estimatzen dutenak gonbidatuko nituzke. Dena den, hitzaldia irekia da herriar guztiendako.

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

Gerriko estutzeko, aurretik jantzi behar

Ni bizi naizen etxeko balkoian jarrita irakurri nion Parisko 68ko maiatzeko iraultzako ideologo bat kapitalismoak azken aldian erakutsi duen ahultasunaren aurrean, ezkerrak sistema iraultzeko urrezko aukera galdu duela. Gauza antzekoa kontatu zidan ekonomilari batek: hori galdua, ezkerrak dagoeneko ez daukala iparrak.

Kontuak kontu, gerriko gehiago estutu gura digute gobernueitatik. Aspaldi, orri hauetan idatzi nuen krisiaren hasiera euroak ekarri zuela edo, hobe esanda, euroaren *biribil-teak*.

Herritarren gastua izugarri handitu zen beste batzuk aberastu ziren bitartean eta gobernuak beste alde batera begiratu zuen axolagabeki. Atzetik kontsumoaren geldiunea, eta ondorioz krisia etorri zen.

Orain, beranduegi, gobernuak konturatua dira ekonomiak larri dabiltzala eta, banku eta enprese handiak -benetako errudunak- laguntzen dituzten bitartean, jende arrunta estutu gura dute. Nazka izugarria ematen dit izugarritzko irabaziak izaten jarraitzen duten enprese handien agintariak politikarien ondoan ahalegin horiek txalotzen ikustea. Bitartean, EAEn egin gura dituzten megaproiektuak kolokan dade; bazeen ordua. Zelan ulertu daiteke, beste premia asko egonda gainera, adibidez AHTk kostatuko duen dirutza gas-tatzeko prest egotea? Eta, polizian zein armamentuan gas-tatzaten den guztia ez daukate murritzeko asmorik?

> Erretiratuei pentsio-ak murritzua gura dizkiete. Kontuz ibil daitezela. Aspaldi entzun nion Arrasateko erretiratu bat inoiz hauteskundeetara aurkeztuko direla; eta, badakizue, gure artean erretiratuak gero eta gehiago dira!

> Baserritar janzteko ohitura ez daukagunok hori berreskuratu beharko genuke, eta gerriko jantzita, zergatik ez, gauzak diru barik, baina borondatez eta ahalegin sutsuarekin egin; horrela bakkrik aterako ditugulako gure nahiak aurrera.

SEKTORE PUBLIKOA > GREBA DEIALDIA

Biharko zerbitzu minimoak zehaztu ditu Jaurlaritzak

GOIATZ ARANA > BERGARA
ELA, LAB, ESK eta ESTEE-EILAS sindikatuek greba deitu dute eta mobilizazioak iragarri dituzte biharko, maiatzak 25, sektore publikoan. Jose Luis Rodriguez Zapaterok eta Patxi Lopezek funtzionarioentzat iragarri dituzten soldata murriketekiko ezadostasuna da arrazoia. Egoera horren aurrean eta gizartearentzako "ezinbestekoak" diren zerbitzuak bermatuko direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzak gutxieneko zerbitzuak ezarri ditu sektore ezberdinetan. Ospitaleetan jaiegunetako zerbitzua eskainiko dute, lehen mailako arretan zapatutakoa eta larrialdietan ohikoa; horrez gain, atzeratu ezin diren dialisi eta tratamendu onkologikoak ere egingo dira. Eguneko zen-troetan eta zahar etxeetan, langileen %50-60arekin jardungo dute. Hezkuntzan, haur eskolak eta ikastetxeak zabalduko dituzte. Titularitate publikoko garraio zerbitzuek lanegunetako ohiko zerbitzuaren %30 eskainiko dute. Larrialdi zerbitzuetan, jaiegunetan moduan egingo dute lan.

Zein da nekazaritzak egun bizi duen egoera?

Duda barik, gainbehera dator baserri mundua. Milaka urte

Abantailaz betetako kluba!

MAIATZEKO ZOZKETA

Telefona: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA
Bidali KLUBA PANPINA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

SKUNK-FUNKEKO KAMISETA
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

MUNDUMIRAKO MATERIALA
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA GAU 1 TXOPEBENTA LANDETXEAN

Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa.
Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
www.nekatur.net/txopebenta
www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginene.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hain zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Eguenean Jose Mari Soroaren emanaldian jende asko bildu zen.

IRATI GALLASTEGI

NAGUSIAK > EGOITZETAKO JARDUERAK

Nagusien gaitasunak mantentzeko ekintzak

Aretxabaletako GSR zaharren egoitzan Jose Mari Soroa abeslaria izan da oraingo egunean

NEREA MENOR > ARETXABAleta
Momentuan 107 egoiliar daude Debagoiebeko GSR egoitzan, Aretxabaletan. Bertako nagusiak animatze aldera, ekintza asko antolatzen ditu egoitzako fisioterapia eta terapia okupazionaleko departamentuak. "Urte bete eskas daraganu lanean eta ekintzak ugariotzea da gure asmoa: irteerak egitea, nagusiaren astea ospatzen hastea...", dio Irati Gallastegik departamentuko kideak.

SOROAREN EMALDIA
Eguenean, Jose Mari Soroa abeslariaren bisita izan zuten Aretxabaletan. "Jende asko animatu

zen etortzen eta bertako egoiliarrak oso gustura egon ziren. Denek hartu zuten parte eta arratsalde guztia abestu eta abestu igaro genuen. Egoiliarren fami-

ESANAK

"Egiten ditugun ekintzek nagusien autoestima eta memoria hobetzen laguntzen dute"

Irati Gallastegi > Terapeuta

liako asko ere animatu ziren emanaldira eta oso ondo pasa genuen guztiok", adierazi digute egoitzan.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete Nagusilaneko eta Pastoraleko boluntarioei euren laguntzarengatik.

GAITASUNAK MANTENDU

Astegunetan programazio finkoa dute egoitzan, "gimnasia, eskuilanak, bingo... Astean behin ekintza bereziak prestatzen ditugu: aratusteak, danborrada...". Ekintza hauek nagusien autoestimua hobetzen laguntzen dute la adierazi digute, baita memoria lantzen eta lasaitzen ere. Eguneroko ekintzetan partehartzeak euren gaitasunak mantentzeko eta hobetzeko balio dute.

ELKARTASUNA > SAHARAREN ALDEKO ELKARTEA

Maiatzak 20 sahararen aldeko elkarteak 'Oporrak Bakean' programan egingo du lan

Duela gutxi sortutako elkartea 'Oporrak Bakean' programaren barnean dago eta Mundumiran izango da asteburuan

N.M. > BERGARA

Eguenean, Iraultza Sahararraren urteurreneko ospakizunaren harira, saharar herriaren aldeko elkartea berri bat aurkeztu zen inguruko saharar herriaren aldeko elkarteen artean. Maiatzak 20 izena du irabazi asmorik gabeko

elkartea eta ingurukoekin batera arituko da hainbat ekintza antolatzen.

ATERPETXEAN

Proiektuaren oinarria *Oporrak Bakean* programa da. Harrera familiak beharrezkoak direla pentstu arren, urtetik urtera hauen kopurua jaitsi dela uste du Maiatzak 20 taldeak eta ondorioz aterpetxeetara eraman nahi dituzte.

"7 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpamentuetatik ateratzea da elkarrearen helburua eta bide batez desertuan udako bi hilabete horietan pairatzen den temperatura altuetatik babestea. Gainera,


mediku errebisioak gauzatzen zaizkie eta oinarrizko arazoak konpontzeko bidean jarri", adierazi dute Maiatzak 20 taldeko kideek. Aurten, Brinkolako aterpetxeen ostitu hartuko dute umeek, begirale saharar eta euskaldunekin.

MUNDUMIRAN

Aste bukaera honetan ospatuko den Mundumira jaialdian ere izango da taldea. Autofinantza zioa lortzeko bidean, Bertan, txapak jarriko dituzte salgai. "Txapak margarita bat du saharar banderarekin batera. Bakoitzak 1,50 eurotan saltzen ditugu", adierazi dute.

EUSKAL HERRIA
turismo • cultura • naturaleza • vida
aurkezten du
aldizkariak

Mundumíra



Antzuola - DEBAGOIENA

Malabaracirco, Tiritirantes, Oihulari Klown, azokak, umeen gunea,
herriko trikitixa eta txistulariak, mendi igoerak, diaporamak...

munduko kulturen festa



OJOS
DE BRUJO (Catalunya)
GANGBÉ BRASS
BAND (Benin)

GOSE (Eh)

THOMSO (Senegal)

KLAK!SON (Antzuola)

GIRASONS (Auditori de Barcelona)
TACUMAH REGGAE BAND (Eh)
BAIÃO BRASIL (Brasil)
RUMBA VELLA (Catalunya)

Euskadiko BOULDER Txapelketa

i 902 181 471

www.mundumirafesta.com

Astelehenetako:
EUSKAL HERRIA

902 181 471
www.euskalherria-aldzkaria.com

gintonic
producciones
www.gintonicmusic.com

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
TURISMO

Batezko negusiek:

euskaltel
gozalteuseuskaltel.com

TERNUA

kutxa

medio-medio medio-medio

Gipuzkoako Foro Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Babesteko:

Obra Social
Fundación "la Caixa"

ULMA

EUSKADI

GARAIA
Garaia
Garaia
Garaia

ekar

MONDRAGON
UNIVERSITATIA

Kolaboratzaileak:

agua ura
ALZOLA
www.alzola.com

PEPSI

ANTEL

inguru
Energia
Energia

radio euskadi

Goiena
Energetika Zirkuitak

Leitzaran
Gaitanak

Trazos kultura elkartea duela urte batzuk hasi zen Mexikorekin harremanak estutzen. Ber-

tako musika taldeak Euskal Herrira ekarri eta hemengoak Mexikora eramatenditu. Orain-

goan, Mexikoko iraultzan izandako borrokalarri ezagunenek bilobak ekarri dituzte gurera.

Urduñan izan ondoren Bergarako osoko bilkura aretoa era bat betetzea lortu dute.

Tomas Villa Cordova eta Isaias Manuel Manrique Zapata > Villa eta Zapataren bilobak

"Mexikarrok nondik gatozen eta nora goazen erabakitzeko momentu ona da"

NEREA MENOR > BERGARA

Dagoeneko Mexikon izango dira Tomas Villa eta Isaias Manuel Manrique. Hala ere, Euskal Herrira egindako bisita kostata ahaztuko dute. Oso gustura egon dira gurean: jendearen harrera, pintxoak, bakailaoa...

Nolakoa izan zen Mexikoko Iraultza?

1910.urtetik 1920 edo 1923.urterera izan zen. Baino nire ustez ez zen iraultza bakarra izan. Altxamendu armatu asko eman ziren eta guda zibila ere egon zen tartean. Garai horretan agintari asko egon ziren Mexikon: Porfirio Diaz, Madero, Huerta eta Carranza. Villa beste nagusi batzuekin batera Texatik sartuko da Mexikora eta Zapata hegoaldean arituko da borrokan. Nekazariendako lurruk eskatzen zituzten biek, eta buruzagi batzuek hori agindu arren, batek ere ez zuen bete.


Eta iraultzaren ondorioak?

Mexikoko eskualdeetako buruzagi gehienak hil egin zituen Gobernuak eta gainerakoak sistema berak irentsi zituen. Mobilizatutako jende asko desmobilizatuta bukatu zuen borrokaren erdian zeudenean. Horregatik, porrota militarra eman zelan esan daiteke baina gauza asko lortu ziren. Boterearekin gelditu ziren gizonek ez zituzten lurruk banatu nahi, ezta beraien berezko jabeei bueltatu ere. Hainbesteko presioa izan zuten baina, azkenik lur-banatze hau egiteko agindua konstituzioan sartu zela. Konstituzio berri horretan borrokalariek eskatutako beste hainbat gauza ere lortu ziren: hezkuntza dohain eta laikoa esaterako.

Baina arazoak daude: garai hartan ezarritako instituzio askok zaitasunak dituzte indarrean jarraitzen.

Hala da, Indigenista Instituta Nazionala da honen adibideetako bat. Mexikoko kulturaren berpiztea ere eman zen. Sortu ziren garaiaren benetan ondo erabili genituen, Mexikorentzat paradigma berriak izan ziren. Oraindik instituzio hauek badau de baina gaur egun arazoak dituzte irauteko.

Mexikoko independentziak 200 urte bete ditu aurten eta Mexikoko iraultzak 100. Atzeria begiratu eta egindakoa baloratzeko ordua da?



Isaias Manuel Manrique Zapata eta Tomas Villa Cordova, nor bere aitonaren argazkiarekin.

NEREA MENOR

IRAUFTA

"Nekazariendako lurruk eskatzen zituzten Emiliano Zapatak eta Pancho Villak"

Mexikarrok nondik gatozen eta nora goazen erabakitzeko momentu onena dugu hau. Gure herriak oso egoera konplexua bizi du, iraultzak ate bat zabaldu zuen eta Pandoraren kutxa zegoen han. Hala ere, leihoa bat ere zabaldu genuen, eta hortik gure herriarentzat nahi genuen etorkizuna ikusi genuen. Gure

IRAUFTAREN OSLEAN

"Porrota militarra gain borrokalariek eskatutako gauza asko lortu ziren"

erronka nagusia atea ez baina leihoa zabaltzean datza: ulertze-ko, jarraitzen, ekiditeko... Atzea begiratuz, egondako kostu sozialetaz jabetuko gara. Iraganean egindakoaren gaineako gogoeta egin eta amildegitik behera berriz ere ez botatzeko eginbeharrekoak zehaztu behar ditugu.

INDIGENAK

"Hidalgoko indigenenen Otimi hizkuntzari euskararen antza hartzen diot"

Nor izan zen Pancho Villa?
Bitarteko apal eta xumeekin justizia herrikoaren ordezkarria zen Villaren irudiarekin geratzen naiz ni. Gose den herriari jaten eman eta aldi berean armada oso bat mantentzeko gai zen. Hezkuntzaz maiteminduta zegoen, esku-la asko eraiki zituen. Jeneral bat baino irakasle bati ordaintzea

nahiago dut, zioen, aurkako erre-gimenekeko irakasleei ordaintzen zienean. Askotan, Gobernuak ez zien soldatua ematen garaiko irakasleei (Gobernuak izan arren) eta halakoetan Villaren figura ezagunena dela esatean. NASAkoek badute Zapata ize-neko ontzi bat, pentsa! Emiliano-ren gaineko liburu asko idatzi dira, abestiak ere bai, pelikulak; eta baita manifestazio asko egin ere. Alderdi politiko gehienek bere irudia erabiltzen dute. Eta, zergatik? Bere ideiak hasieratik mantendu zituen, nekazaritza kontuetan beti finko jokatu zuen. Indioei kendutako lurrengatik borrokatu zen. Bere borroka osoan zehar lurruk, dirua eta kargu publikoak eskaini zizkioten baina bere ez zen saldu. Bere buruarekin eta ingurukoekin izan zuen zintzotasuna asko baloratu du jendeak. Nire ustez, bere bizitza etengabeko borroka bat izan zen.

Eta nor Emiliano Zapata?

Mexikok heroi asko izan ditu independentzia garaian, iraultz... Baino kanpora joaten diren guztiak bat datoaz Zapataren figura ezagunena dela esatean. NASAkoek badute Zapata ize-neko ontzi bat, pentsa! Emiliano-ren gaineko liburu asko idatzi dira, abestiak ere bai, pelikulak; eta baita manifestazio asko egin ere. Alderdi politiko gehienek bere irudia erabiltzen dute. Eta, zergatik? Bere ideiak hasieratik mantendu zituen, nekazaritza kontuetan beti finko jokatu zuen. Indioei kendutako lurrengatik borrokatu zen. Bere borroka osoan zehar lurruk, dirua eta kargu publikoak eskaini zizkioten baina bere ez zen saldu. Bere buruarekin eta ingurukoekin izan zuen zintzotasuna asko baloratu du jendeak. Nire ustez, bere bizitza etengabeko borroka bat izan zen.

Indigenen aldeko Zapataren borroka eredutzat hartuz EZLN (Ejercito Zapatista de Liberacion Nacional) sortu zen Chiapasen. Zer deritzozu?

Bi borrokek antza dute gauza batzuetan eta beste batzuetan ez. Hasteko Zapataren borroka Morelosko eskualdean izan zen eta EZLNrena Chiapasen. Mugimendua hasi zenean indigenen esku-bideen alde borrokatzenten ziren, orain baina, politika orokorrean lan egiten dutela dirudi. Publikoki mugimendua indartsu dago. Abenduan izan nintzen azkenekoz Chiapasen eta herritarren ustez Marcos Subkomandantearen berri izango dugu. Urte hasieran izango zela uste zen arren, agian data bereziren bat aukeratuko du.

Zein da indigenen egoera egun?

Etnia ezberdin asko daude Mexikon. Ni bizi naizen herritik gertu Tetelsingoak daude eta Nahnatl hizkuntza hitz egiten dute, hau da herrialdean hedatuena. Hidalgo Otomi hizkuntza hitz egiten da, Mexikoko hizkuntza zaharrena da eta euskararen antza hartzen diot. Euskarazko hiztegi bat erosil dute, ea loturariak aurkitzen dugun!

Datuek dena diote.

GOIENKARIA

> 30.000 lagunek irakurtzen dute astero, papereko bigarren irakurriena baino 10.000 irakurle gehiagok.*

GOIENA TELEBISTA

> 8.000 lagunek ikusten dute egunero, iaz baino 2.000 lagun gehiagok.*

GOIENA.NET

> 2010eko lehen lau hilabeteetan 218.280 bisita izan ditu; iaz baino 67.077 bisita gehiago denbora-tarte berean. **

Eta guk gauza bakarra: eskerrik asko.

*CIEsek 2010eko lehen lau hilekoan egindako neurketa. ** Google Analytics-en bidez egindako neurketa.

kale inuesta

Udaberri hasiera petral xamarra izan da, baina eguraldi ona iritsi da. Aldartea aldatu al dizu?



Kontxi Puertas
Langilea
Oñati



Miguel Iñurritegi
Erretiratua
Oñati



Ainhoa Briñas
Ikaslea
Oñati



Mikel Aranburu
Langilea
Oñati

Eguraldi onaren beharra bazegoen. Udaberriko ez du egin, eta zuzean igaro gara negutik udara. Animoa ematen du eta gogo gehiago kalea irten edo mendian buelta bat emateko. Bazen garaia!

Eguraldi ona beti da pozgarri. Baratzak ere eskerzen du, tomateak indartu egiten baitira. Karakolak ezkutatu egiten dira, eta niri hezurrak indartu egiten zaizkit. Jendea animosoago egoten da, gainera.

Asko animatzen nau eguraldi honek, baina azterketak gainean ditut eta ezin izan dut askorik aprobatxatu, etxe aldetik ibili naiz. Hondartzara joateko gogoa ematen du, baina datorren astean izan beharko du!

Aldartea aldatzen dit, bai. Eguna hasteko beste indar bat ematen dit. Aktiboa nago gainera, eta jendea plan ezberdinak egiteko prest egoten da, normalean baino gehiago. Behar handia zegoen, egia esan.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Agorrosineko igeriketa ikastaroetarako zozketekin kexu

Agorrosinen igeriketa ikastaroan semea duen ama batek deitu digu. Kexu da ikastaroan parte hartzeko urtero zozketa egiten delako, aurreko urtean parte hartu duen edo ez kontuan hartu gabe. Deitu digun emakumearen semeak, esaterako, orain bi urte ikastaroan esku hartu zuen, iaz kanpoan geratu zen eta aurten berriro hartu dute. Aurretik lortutako maila galdu du mutikoak eta berriro lehen mailatik hasi da. Haurrei jarraipena bermatzea eskatzen dute.

OÑATI

> Errekaldeko lanak jaiekin batera hastea ezinbesteko zen?

Errekalde auzoko jaietan bertako bizilagun bat gerturatua zai-gu auzoa berritzeko astean abiarazi dituzten lanak beranduago hasterik ez al zegoen esanez: asteburu honetan bertako jaiak izan dira eta eraberritze lanek endredoak sortu dituzte, bere esanetan. Onartu du, hori bai, egin beharreko lanak direla.

DEBAGOIENA

> Betiko jolasak berreskuratzeko ekimenekin gustura

Azken denboraldian betiko jolasak gaur egungo haurrei era-kusteko hainbat ekimen egin dituzte Arrasaten, Eskoriatzan eta Bergaran, besteak beste. Eskoriatzar batek deitu du ekimen hauek txalotzeko. Gaurko haurrek soilik bideo-jokoetan jolasten dakitela eta betiko jokoak galtzea pena litzatekeela kontatu digu.

usteak uste

Lander Muñagorri

Morboaren lubakiak

Bimila ta zazpian Intxortako Atea inauguratu zutenetik, memoria historikoa berreskutzeko pausu bat gehiago eman dute Elgetan. Izan ere, atzo inauguratu zuten *Gerra Zibila Euskal Herrian: ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* proiektua.

Erakusketa batek eta herriguneetik Intxortarako ibilbideak osatzen dute proiektua. Bidean jarritako panel informatiboek leku bakoitzak frentean izan zuen garrantzia azpimarratzen dute. Eta amaitzeko: bisitarientzat beste ezer baino erakargarriago izan daitezkeen lubaki eraberrituak.

Inondik ere beharrezkoa da memoria historikoa berreskutztea, urteetan zehar ahaztuak izan diren hildakoak gogora ekartzea. Baina kontua da, morbosidade puntu bat baitauka hildakoak egon ziren lubakiak interesgune 'turistiko' bezala erakusteak.

"Jaiei hasiera Bitorianatxok eta Antonio Irazolak emango diete. Irazolak jaurtiko du txupinazoa eta gero jai-tsiko da Bitorianatxo. Guztia prest dago gaur, egubakoitza, Pazkoei hasiera emateko.

Gainera, berrikuntza garrantzitsu batetkin hasiko dira jaiak aurten."

Monika Belastegi
Goienkaria > 2010-05-21



Herriko jaietan murgiltzeak, krisiaren albisteengandik edo gatazka guziengandik urrundu gaitu. Festaren izpiritua oasi (edo isplukeria) bat sortu du, jai giroak zutabegilearen bihotza bigundu, eta behingoz bada ere, eztena gorde, eta zorrozailea limurtzaile bilakatu da. Jaietan dabilen herriaren omenez, hona hemen Bergarakitik gustatzen zaizkidan hamar gaua:

1. Euskaraz bizi den herria izatea. Eskertzen dut kalean, dendetan, erakundeetan... euskaraz normal berba egitea, estimatzen dut gure semeak arlo denetan modu naturalean euskaraz haztea.
 2. Zazpi-zortzi urteko ume bat herrian bakarrik ibili ahal izatea, bere autonomiaren eta gurasoen lasaitasunaren mesedetan.
 3. Kalean, azokan, dendetan jendeak nire izenez agurtzea eta zer moduz nagoen galdeztea. Eta nik gauza berbera egitea.
 4. Herrian bizi den musika zaletasuna, zenbat herritarrek harzen duten parte musika-ekitaldieta, eta askotariko jendea izatea.
 5. Elizkizunetako eta hiletamezetako musika, koroa eta organua. Santuseko ossana aurretik organuak jotzen duen akordea entzuteak soilik merezi du meza bat.
 6. Nire ezkon familia osoak eskaini didan maitasun baldintzabakoa, gutxienez azken hirurehun urteotan Bergaran edo Antzuolan jaio ez den lehen famili kidea izanda ere. Eskerrik asko.
 7. Santa Ana parkea. Maite dut txoko hori edozein urtarotan. Agintariren bat bertako elizan kristaldegia handiko kafetegi bat ipintzea otuko balitzao, nire hilarteko botua eskuratuko luke.
 8. Zerbait urrun dagoela adierazteko erabiltzen den esamoldea: Pikunitan egon. Pikunita Bergaran baina ia Aizpurutxon dagoen baserria da, herri barruan baina azken mugetan.
 9. San Martzial eguneko jaia, Bergarako festarik onena zalan-tza barik. Dena gustatzen zait: idi parea, ardo-barrikotea, erromeria, lagunartea... Alaitasuna eta alkohola lagun, bergarren alderik dibertigarriena ateratzen da egun horretan.
 10. Herriaren kokapena. *Bergaritis herrititis* eraso zorrotz bat emanez gero, hiru ordu laurdenean hirian zaudelako.
- Bergarar bizikideok, debagoiendarrok, pasaiuez ondo jaizak!

**"Herriko jaietan,
zorrozailea
limurtzaile"**

**"Gustuko dut
herrian jendeak nire
izenez agurtzea"**

Goienkaria

Argitaratzailea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperativa Elkarte • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABAleta

Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi

Asteburuko eredakzioaren ardurdaduna Gómez Arana Erredakzioa Arantzazu Ezkibel, Lander Muñagorri eta Larraitz Zeberio

Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu ardurdaduna Ifaki Iturbe Maketazioa Otxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitate

ardurdaduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio ardurdaduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITA NAGUSIA BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK ARRASATE 20500 Otxalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kuba • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana II • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligono • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: publ@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligono • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale

Goiena

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 16 Bergara > 17 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**
Udala pozik, hiri-gutunaren 750. urteurreneko hitzaldietako parte-hartzearekin > **16**



> **ARETXABAleta**
Gazteen egitasmoak aurrera eramateko dirulaguntza deialdia egin du Udalak > **19**



> **ARAMAIO**
Patxi Uribarren euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia, egubakoitzean > **20**



Basagoitiko biaduktua Aretxabaleta eta Aramaio arteko errepidean, GI-3920 errepidean.

JOSEKO ARANTZABAL

ARETXABAleta > ERREPIDEAK

Udala eta Bidegi akordio batera iritsi dira hainbat konponketa egiteko

1,8 MILIOI EURO

AP-1 errepideko eraikuntza lanek eragindako kalteak konpontzeko

AKORDIOA

Aurreko astean lotu zuten akordioa Bidegik eta Aretxabaletako Udalak

LARRAITZ ZEBERIO > ARETXABAleta

"Akordio oso emankorra da, eta aspaldian espero genuena", esan du Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok. "Orain badakigu Bidegik diru partida bat daukala Aretxabaletan AP-1 autobideko lanek eragindako kalteak konpontzekeo". Aurreko astean bildu ziren Aretxabaletako ordezkarriak Bidegik zuzendari Borja Jauregirekin batera. Adostutako neurriak hiru ataletan bereizi daitezke. Alde batetik, Bidegik bere aldetik burutuko dituen bi egitasmo: Basagoitiko bidezubiaren inguruan bata, eta Izurieta errepidean, bestea.

Aurrekontu handiena, 736.000 eurokoa, Basagoitiko biaduktuan eraikuntza dela-eta Aretxabaleta eta Aramaio arteko GI-3920 errepidean sortutako kalteak konpontzeko lanek jasoko dute. "Errepidearen eta ubidearen trazatua

desbideratu ziren", dio Bidegik bidalitako oharrak. "Bere inguru-menaren berreskuratzea jorratuko da orain, eta trazatu berria birgaituko da".

Izurieta bidea konpontzeko, berriz, 263.000 euroko diru partida agindu du Bidegik. Kasu honetan, oso kaltetua izan den zorua konponduko dute. "Lehiaketara

atera ditugu lanok, eta horrek bere prozedura du. Lanak ez dira hiruzpalau hilabete baino lehen hasiko", esan du Bidegiko prentsa arduradun Oskar Rekalde.

843.000 euroko balioa duen hitzarmena udalerrian hainbat konponketa egiteko

"Akordio horren barruan sartzen diren lanak honakoak dira", azaldu du Inaxio Garro alkateak. "Lausitako mendi magala konpontzea, Egileor eta Lausita baserrieta ur biltegiak berregitea, Ametsagako errepidea konpontzea, obrako hondakinak garbitzea, araka batzuk konpontzea, Egileor ingurua berreskuratzea eta Basagoitiko biaduktuan inguruko hainbat soro garbitzea". Oroko bidea ere berreskuratuko dela esan du Garrok. "Guztiz baliozkoa gelditu zen AP-1 autobideko lanen ondorioz. Aretxabaleta eta Arrasate artean egiten ari diren biribilgunera izango du irtetera berria". Urtebetetako AP-1 autobidea zabaldu zutela, baina eragindako apurketak handiak izan dira. Aretxabaletako eta Bidegiko ordezkarriak behin baino gehiagotan bildu dira akordio batera iristeko.

UDALAK BULTZATUKO DITUENAK

Horrekin batera, Bidegik 843.000 euroko balioa duen lankidetza hitzarmena sinatuko du Aretxabaletako Udalaren AP-1 autobideko lanek udalerrian eragindako kalteak konpontzeko. "Hitzarmen horretan jasotakoak Aretxabaletako Udalak aterako ditu lehiaketara", azaldu du Garrok. "Hau da: dirua aurreratu beharko dugu, baina faktura horiek Bidegira bidaliko ditugu gero". Lanen zerrenda luzea da eta Garrok esan du Udalak ezingo dituela guztiak batera egin. Esan du asteon bertan batuko direla lehentasunak finkatzeko.

BERGARA > PAZKOAK

Egunez eta kalean egin dute festa gehienbat berargarrek

Tenperatura altuak eta kaleko giroa izan dira Pazko jaietako lehen txanpoko ezaugarri nagusiak

Gaur, Koadrilen Eguna, egun handia da Bergaran eta bihar, nagusien eta umeen txanda izango da

LARRAITZ ZEBERIO > BERGARA
Festa giroan eta aparteko ezuste barik ospatu dituzte Bergaran aste bukaerarako iragarrita zituzten 44 ekitaldiak. Guztiek burutu direla konfirmatu dio GOIEN-KARIA-ri Kultura zinegotzi Enara Minguezek. Eguraldia lagun izan dute bergararrek, zenbait unetan larregiko beroa ere bai, eta horrek jendea kalean festa egitera animatu du. Hiru egunotan umore onez eta festarako gogoz ikusi ditugu bergararrak.

PART-E-HARTZE HANDIA
San Martin plazan, txosnagunean edo Matxiategin, jende andana ibili da kalean eta ekitaldi

gehienek herritarren erantzuna izan dute, parte-hartaile moduan dela edo ikusle gisa. Eguraldiak asko lagundu du horretan, baita gertatutako eskaintza zabalak ere. Adin guztietako jendea ikusi dugu kalean, eta berandura arte ibili dira jaigiroan.

KRISIAREN ERAGINA

Barraketan eta gaueko giroan nabaritu da akaso gehien azken boladan denon ahotan den krisiaren eragina. Barraketako zenbait arduraduni galdetuta, esan digute jaietako lehen egunotan aurreko urteetan baino mugimendu txikiagoa sumatu dute-la, eta espero dute gelditzent diren bi egunotan jendea gehiago animatzea. Gaueko ordu txikietan ere gero eta jende gutxiago ibiltzen dela jaso dugu. Egubakoitz gauean nabaritu dute, batez ere, beherakada tabernariekin. "Azken urteotako dinamika dela esango nuke", adierazi du Minguez zinegotziak.

APARKATZEKO, NAHICO ONDO

Jai egunotarako eta aparkaleku arazoei aurre egiteko, hainbat neurri hartu ditu aurten Udalak. Eraginkorrik izan direla esan daiteke. "Aparkatzeko, egia esan, arazo gutxi izan ditut aurten", adierazi digu jaietan atzera eta aurrera ibili den elgetar batek.

Udaltzaingotik, hori bai, jakinarazi digute lan gehien, egunotan, gaizki aparkatutako autoek eman dietela, baina arazoa ohikoa dela.

EKITALDI JENDETSUAK

Jende mugimendu gehien izan duten ekitaldien artean bat baino gehiago nabarmendu daitezke: Bitoriantxoren jaitsiera, musika bandaren kontzertua, han eta hemen antolatutako bes-telako kontzertuak, plastika lehiaketa, kalejirak, errekontadore ikuskizunak, umeen jolasak, dantza askatuko lehiaketa...

Aurtengo berrikuntzen artean, berriz, esan beharra dago hamar izan direla goitibehera lehiaketan parte hartu duten taldeak. Eta atzo, domeka, lehenengo aldiz egindako baltsa jaitsieran hiru koadrilak hartu zuten parte.

GAUR, KOADRILEN EGUNA

Jaietako ekuadorrean, Koadrilen Eguna ospatuko dute gaur Bergaran. Egun handia dute, blusak jantzi eta kalera irteteko aukera paregabea. Urtetik urtera, gero eta berigarar gehiago joaten da bazzari horretara, eta aurten inoiz baino txartel gehiago ipini dira salgai; iaz baino 200 txartel gehiago. Aurreikuspena da bazzari horretan 750 lagun elkartzea.



Jaietako lehen ekitaldia, egubakoitzeko Bitoriantxoren jaitsiera, jendetzenetarikoa izan zen.



Xaxau-ren jaitsiera.



Atzoko apar festa Munibe plazan.

PROTAGONISTEKIN BERBETAN



Maria Teresa Bruña eta Begoña Ugarte
Bergara

Bakailao lehiaketako kazuelei errepasoa egiten harrapatu genituen zapatu eguerdian San Martin plazan. "Badaude bi zoragarri daudenak, oso presentzia onekoak", esan zigun Begoñak.

Biak ala biak, baina, kazuela batekin zalantzatan zeuden. Besteekin alderatuta kolore zuriagoa zeukan. "Akaso, esne-gaina bota diote!".



Jose Miguel Lazcano eta Jose Mari Etxeberria
Bergara

Bakailao kazuela epaimahaiko kideen eskuetan laga eta gero hitzegin genuen bikote honekin. Egindako lanarekin gustura gelditu zirela esan ziguten. "Orain, epaimahaiko-ek agintzen dute", adierazi zuten. Pozik zeuden aurtengo an hiru bikote gaztek hartu dutelako parte lehiaketan. "Guk urte batzuk baditugu, eta atzetik jendeak etorri behar du".



Iñigo Almortza eta semea
Bergara

"Sekulako maila egon da errekontadoreen txapelketan", esan zigun zapatuko ikuskizuna amaitutakoan. "Nagusiek ondo ibili dira, eta gaztetxoak zer esanik ez. Ikusten ari gara errekontadore eskola bere fruituak ematen ari dela eta pozik gaude". Zezen beltzarekin izandako ezusteari buruz esan zigun horrelakoetara ohitura daudela. "Jendea alteratur egiten da, baina zezen horrek bere ikuskizuna eman du".



Atzoko baltsa jaitsieran parte hartu zuten hiru taldeetako bat.



Udal musika bandaren saioa, Espoloian.



Imanol Diez errekortadorea.



Zapatuko plastika lehiaketan parte hartu zuen neska-mutiko taldea.



Barrakak, Matxategin.

ARGAZKI: JOSEXO ARANTZABAL

PROTAGONISTEKKIN BERBETAN



Oihan Vega
Bergara



Marina Iturriaga
Bergara



Blas Cruz
Arrasate



Imanol Diez
Oion



Ane eta Maialen
Arrasate eta Donostia

Zapatuan, erraldoien konpartsaren kalejiran harrapatu genuen. "Eguraldi ona eta egundoko giroa kalean! Horixe da gehien gustatzen zaidana; herriko jendea kalean eta umore onean ikustea".

Errekortadoreen txapelketa ikusten izan zen. "Gustatzen zait ikuskizuna, arratsalde pasa egiteko modu ona da". Jaiak festa egiteko aprobetxatuko zituela esan zigun. "Denetik egitea da asmoa".

Bigarren egin du errekortadore txapelketan. "Arratsalde polita izan da. Jende asko etorri da gu ikustera eta ikuskizun polita eskaini dugula uste dut. Umeak ere oso ondo aritu dira. Pozik egoteko moduan gaude!".

Errekortadore txapelketan nagusitu zen Diez zapatuan. "Lehen aldia da lehenengo sari bat eskuratzendudala. Oso pozik nago. Ordu eta erdiko bidaia egin dut hemen egoteko eta merezi izan du!

Bergarako jaietan primerako giroa egoten dela uste dute bi neska gazte hauek. "Ondo pasatzera etorri gara asko gustatzen zaizkigu-eta Bergarako Pazkoak". Anek Donostiako Maialen ekari du Bergarako jaietara. "Kalean, Donostiako jaietan baino giro hobea dago hemen", dio Maialenek. "Oso gustura nabil".



> BAKAILAO LEHIAKETA

Zapatuan bakailao lehiaketaren 28. edizioa egin zuten San Martin plazan, eta herriko hamar elkartea gastronomikoetako ordezkariek hartu zuten parte; Basalgo, San Juan, Sagarpe, Azkagain, Gorla, Pertxa elkartea, Hermandad Pertxa, Madura, Jaolatza eta Muriondo elkartek, hain zuzen ere.

Lapiko eta amantil artean lanpetuta ibili ziren. Lehenengo saria Uberara joan da aurten; Jaolatza elkarteko Ander Markiegik eta Maria Jose Apalategik eraman dute.



> DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA

16 urtetik beherako 23 bikotek hartu zuten parte atzo San Martin plazan jokatutako dantza askatuko txapelketan; bergarako bi bikote tarteak. Lehenengo saria Erreenteriara joan da aurten: 15 eta 13 urteko Aitor eta Uxue Arrieta anai-arrebek eraman zuten. Bigarren saria Azpeitiko Amets Amubietak eta Maialen Aldalurrek jaso zuten, eta hirugarrena Lezo-Billabonako Iker Sanzek eta Lierni Kamioek. Plazan ikusle asko elkartu ziren. Eserlekua guztiek bete ziren eta jendeak zutik jarraitu zuen lehia.

Egitaraua

Astelehena, 24, Koadrilen Eguna

11:30 Koadrilen arteko HERRI KIROLEN TXAPELKETA. Zezen-plazan izango da txapelketa, Xapre eta Zarra trikitilariek eta Incansables txarangak alaituta.

12:30 DANTZALDIA Fabulosa orkestrarekin, Espoloian.

14:30 HERRI BAZKARIA. San Martin plazan izango da. Gero eta jende gehiago joaten da bazkari horretara eta aurten 750 txartel ipini dituzte salgai, iaz baino 200 gehiago. Euria egiten badu, Labegaraietako kirolegian izango da bazkaria. Incansables txarangak ipiniko du musika. Segidan, koadrilen arteko jolasak izango dira, eta karaokea ere, DJ Angierekin.



18:30 ERREKORTADOREEN ESKOLA IBILTARIA. Zezentxoekin, zaleendako. Zezen-plazan.

19:00 KALEJIRA Incansables txarangarekin San Martin plazatik hasita.

19:00 KONTZERTUAK Extorsion eta Xero Xete taldeak. Txosnagunean.

19:30 BERGARA HIRIA PILOTA FINALAK. Maila handiko partidua ikusteko aukera dute zaleek: Irujo eta Laskurain, Titin eta Pascualen aurka. Pilotalekuau.

20:00 ERROMERIA. Erdizka Lauetan taldearekin. San Martin plazan.

22:30 KONTZERTUAK. Latz eta Inger, lehenengo; Fiachras gero; eta, bukatzeko, Des-kontrol.



23:00 CAMP DANTZALDIA. Fabulosa taldearekin, Espoloian.

23:00 DANTZALDIA. Amairu taldearekin. San Martin plazan.

05:00 KARAOKEA. Txosnagunean Karaokea, eta kulero eta galtzontzilo lasterketa.

Martitzena, 25 Nagusien eta Umeen Eguna

09:00 BIGANTXAK Zezen-plazan.

11:00 UMEENDAKO JOLASPARKEA. Ipintza II-ko patioan, 11:00etatik 14:00etara. Auto txikiak, zezen mugikorrak, goming...

12:00 HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA. San Martin plazan. Honako partaideekin:

Ioritz Gasasola (Zelai III.a) eta Jon Gasasola (Zelai IV.a) eta Hodei Ezpeleta aizkolariek; eta Joseba Ostolatza, Ureta eta Idoia Etxeberria harrijasotzaileak. Aurkezlea da Ernesto Ezpeleta, *Bihurri*.

12:30 MUSIKA. Duo Plaentxi taldearen emanaldia. Domingo Irala kalean, 12:30etik 14:00etara.

16:30 UMEENDAKO JOLASPARKEA. Ipintza II-ko patioan, 16:30etik 19:30era.

17:00 PILOTA. Eskuz banakako profesional mailako pilotu partidua, Udal pilotalekuau.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA. Zezentxoekin ikuskizuna. Zezen-plazan. Incansables txarangak alaituta.



18:30 Debagoieneko V. JARDUNALDI GASTRONOMIKOEN AURKEZPENA. San Martin plazan.

18:30 PINTXO ETA ARGAZKI LEHIAKETAK. Txosnagunean.

19:30 UMEENDAKO KARAOKEA. Txatxitipurdi elkartek antolatuta. 19:30etik 21:00etara.

20:00 LEHIAKETATAKO SARI BANAKETA. Txosnagunean.

22:30 DJ FESTA.

DJ Oihan Vegak ipiniku du musika. Emanaldia, gauerdira arte. San Martin plazan.

00:00 BITORIANATXOREN IGOERA. Jaiak bukatzeo. Incansables txarangak musika ipiniko du. San Martin plazan.

00:30 DJ FESTA. DJ Oihan Vegaren eskuikitik. San Martin plazan, 00:30etik 02:00etara.

ZIRKULAZIO ALDAKETAK

Herri barruko zirkulazio aldaketak eguztenera arte

Egunotan Bergaran autoz sartzeko asmoa baduzue, ez ahaztu jaiak amaitu bitartean hainbat aldaketa daudela herri barruan. Kanposanto ondoko aparkalekuaren barrakak ipini dituzte, eta Bideberri, berri, txosnagunea. Bi leku horietan ezin da autoa aparkatu. San Martin herri eskolak eta Aranzadi ikastolak poligonoan dituzten patioetan, aldiz, 100 aparkaleku baino gehiago daude.

Herri barruko zirkulazioari dagokionez, gogoratu Bideberri moztuta dagoela, eta txosnagunearen ondorioz Kruz Gallastegi kale osoa itxita dagoela. Lehen taxien geralekua zegoen kaletik jaitsi eta duela gutxi egin duten Bideberri ondoko bidegurutzetik igaro beharko dute autoek. Alde zaharrean, San Martin plaza inguruan ere aldatu egin da zirkulazioa, aste bukaeratan egoten den bezala dago. San Pedro kalea, Komenio kalea eta Bideku-rutzeta ahalik eta gutxien erabiltzea eskatu dute.

HERRI BAZKARIA

Udal langileen lana errespetatzeko eskatu dute

Pazkoetako lehenengo asaltoaren ostean, Koadrilen Eguna ospatuko dute gaur Bergaran; eta Nagusien eta Umeen Eguna, berriz, bihar. Jaiak ez dira, beraz, Bitorianatxoren igoerara arte ofizialki amaituko.

Gaurko ekitaldi nagusien artean herri bazkaria nabarmentzen da. 750 lagun espero dituzte San Martin plazan egingo den koadrilen arteko bazkari horretan. Udaleko Kultura sailetik eskatu dute goizean zehar langileen lana errespetatzeko. Bazkarirako guztia prest egon dadin mahaiak, aulkia eta abar ipini behar dituzte, eta bitarte horretan langileek egin beharreko prestaketa lanak ez oztopatzeko eskatzen dute Udalek. Jende asko batzen da eta lanak zaildu egiten dira, sarri.

Incansables txarangak alaituko du bazkaria, eta ostean koadrilen arteko jolasak eta karaokea izango dira DJ Angierekin.



Helduek hiru buelta eman zizkioten ibilbideari.

JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABAleta > ELKARTASUNA

Sahararen aldeko krosak kolorez jantzi du herria

Aretxabaletarrak eurak izan dira azkarrenak:

Beñat Armendia eta Josu Aizpurua

GOIATZ ARANA > ARETXABAleta

Parte-hartziale kopuru xumea izan du aurten Are-Krosak: 16 lagunek parte hartu dute helduetan; eta, 10 inguruk, haurretan. Herriko Iesbaa taldeak antolatzen du krosa, herri sahararraren alde, eta aurtenoa hirugarren edizioa izan da.

10:30ean hasita eta udaletxe paretik abiatuta, herriko plaza, Errekabarren kalea, Andramari

auzunea, Mitarte kalea, Santa Kurtz kalea eta Otalora kalea zeharkatu zituzten parte-hartzaleek, atzera ere herriko plazara bueltatzeko. Ibilbide hori hiru bider egin zuten helduek -4.500 metro inguru, orotara-, aldiz, haur eta gazteek ibilbide motzagoa egin zuten. Aretxabaletako lasterkariak ez ezik, Arrasate, Bergara eta Hernanikoak ere bazeuden, baina herri bertakoak izan ziren azka-

rrenak: Beñat Armendia helduetan, eta Josu Aizpurua haurretan.

HELBURUAK

Herritarrek, takarradan eginez, sahararren eskubideak aldarrikatu zituzten atzo, beste behin; eta diruz ere lagundu zieten, lasterkariekin eta beste hainbat eta, hainbat lagunek erositako dortsalekin ateratako dirua -hiru euro, dortsal bakoitzeko-, Saharako herriari laguntzera bideratuko delako.

Iesbaa elkartetik datorren urterako deia egin dute.



ANE JAUREGI

'Txominen txapela' janztea balute...

Errepikatzeko modukoa izan da aurten Txomin Txapel eguna -Huheziko festa-. Goizean, askotariko probak egin zituzten olinpiadetan -koxkola apustua zurito eta morenitoekin, adibidez;- eguerdian trikipoteoa eta 250 laguneko bazkaria; Gaztelumendi anaiek bertsotan egin zuten ostean eta gaueko kontzertuekin goizaldera arte luzatu zen festa jendetxua.

200 lagun zerura begira Aretxabaletan

Laino bakar bat ere ez begi bistean, lau teleskopio eta 200 lagun zerura begira; horixe, egubakoitz gaeuan Aretxabaletako plazan jaso zitekeen irudia. Loramendi euskara elkartea eta Ilatargi astronomia taldeak antolatu zuten ekimena, eta arrakasta izan zuen.

Plazako argiak itzalita, handik bertatik hainbat konstelazio ikusi zituzten; eta, teleskopiotik begiratuta, baita ilargia eta Saturno planeta ere, eratzun eta guzti. Harrituta zeuden herritarrok; euren aurpegiak sorpresa erakusten zuten ikusitakoak ikusita.

ARAMAIO > KURTZO AMAIERAKO JAIA

80 familia baino gehiago herri eskolako festan

Arratsaldean askotariko tailerrak eta jokoak egin zituzten; gero, afari-merienda eta erromeria

G.A. > ARAMAIO

"Parranda" egin zuten Aramaioko San Martin Herri Eskolako haur eta gurasoek zapatuan: ikasturte amaierako festan murgilduta ibili ziren arratsaldetik gauerdira arte. Pozik kontatu zizkigutenez atzo bezperako kontuak primeran pasa zutelako, eguraldiak lagundu zuelako eta parte-hartze handia izan zelako -85 familia inguru bat ziren-.

Gurasoek antolatutako tailerrekin hasi zuten festa: graffiti tailerrean, paisaia erraldoi bat margotu zuten horma baten; ponpa erraldoiak egiten ikasi zuten; koloretako aho-zapiekin egindako bolekin koloretako lore

handi bat osatu zuten, collage moduan; arroza, alpiste eta globoekin egindako pilotekin malabareak egin zituzten; eta maki-laje tailerrean, apain-apain jarri ziren. Tailerrekin bukatutakoan, guztiek parte hartzeko moduko jokoak egin zituzten, argazkiko aulkia-jokoak, esaterako.


AFARI-MERIENDA ETA ERROMERIA

Ikastetxeko jangelan afari-merienda egin zuten gero, herri bertako sagardo, sagar-zuku eta ogiarekin, eta familia bakoitzak etxetik eramandako jakiekin. Gurasoetako batek DJ lanak egin zituen eta, hala, punta-puntako erromeria izan zuten.



Neska-mutikoak, aulkia-jokoan.

HERRI ESKOLA



ILATARGI

HISTORIA > ARRASATEKO HIRI-GUTUNAREN 750. URTEURRENA

Hitzaldien parte-hartze altua dela-eta, oso pozik dago Udala

Hitzaldi guztiak interes handia piztu dutela dio Oihana Aranburu Kultura zinegotziak; Arrasateko historian sakontzen jarraituko du Udalak

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
 "Herritarrek sekulako interesa azaldu dute, hitzaldien parte-hartzean garbi azaldu da". Oihana Aranburu Kultura zinegotziaren hitzak dira, eta 750. urteurrenako hitzaldi zikloaren erantzunaz Udala pozik dagoea adierazten dute. Aranburuk gaineratu du "gure herriari buruzko informazio historiko gehiago" ematea zela helburua eta, dioenez, "ahalbidetu da". Hitzaldiak euren artean "oso ezberdinak" izan dira, eta Aitzol Altunak eskaini zuen 1200. *Lurraldetasunaren galera* nabarmendu du zinegotziak: "Hainbat



Toti Martinez de Lezearen 1448ko Arrasateko erreketa hitzaldian Kulturateko areto nagusian ez zen eserleku librerik geratu. J.B.

argipen eman zituen, euskaldu-nontzat ezkutuan egon direnak". Toti Martinez de Lezeak ere Kulturate lepo bete zuen.

SAKONTZEN JARRAITZEKO ASMOA

Arrakasta ikusita, herriko historian sakontzen segitzeko asmoa du Udalak: "Ekitaldien berri ematen

joango gara baina gaurtik gonbidapena luzatzen dugu". Beste herrietako esperientziak eta herri-tarren ekarpenak izan ziren Uda-

EKITALDIA

Bisita gidatua alde zaharrean zehar

Hiri-gutunaren 750. urteurrenaren harira, Helduen Heziketa Iraunkorrerako zentroak (HHI-EPA) bisita gidatua antolatu zuen herriko kaleetan zehar, joan den eguen arratsaldean. Ana Isabel Ugalde historialariak gidatu zuen bisita, eta 30 herritar inguruk hartu zuten parte. Ugaldeka hamaika xehetasun eman zituen Arrasateko historiarenguruan, leku bereziak abiapuntu hartuta. Hala, eguraldi atsegina lagun, gure ondare historikoa ezagutzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.



Bisita, herriko plazara heldu zenean. J.B.

laren abiapuntuak hitzaldiak antolatzekoan: "Dinamika aberasgarria izan da, etorkizunean indar-tu beharrekoa", dio Aranburuk.

Iraitz Etxaburu > Bertso guneko kidea

"Ekimen erabat parte-hartzailea izatea da garrantzitsuena"

J.B. > ARRASATE

Bertso eskola deitza "serioegia" ei denez, Bertso gunea deitu diote herriko zenbait bertsozalek abiarazi berri duten ekimenari. Horrek ez du esan nahi ekimenak seriotsunik ez duenik, baina gune erabat parte-hartzailea izatea da gura dutena. Iraitz Etxaburu (Arrasate, 1985) taldeko kidearekin egongara.

Nola jao zitzaiuen Bertso gunea sortzeko ideia?

Lehen Arrasaten bazegoen Bertso eskola baina desagertu egin zen, eta biziatsuna eman nahi diogu bertsozintzari. Oñatiako bertso eskolako kide naiz eta gure herrian zerbaite sortu behar zela pentsatu nuen. Hala, lagun batekin batera Bertso gunea abiarazi genuen.

Nola joan zen lehen eguna?

Ondo. Lehen klasera bost pertsona agertu ziren eta bigarrerenetara zazpi. Ekimenarekin hasteko moduko taldea sortu dugu.

Non eta noiz elkartzen zarete?

Egubakoitzero elkartzen gara gaztetxeko liburutegian,



Etxaburu, bertsotarako gonbita egiten.

"Herriko Bertso eskola desagertu egin zen; guk bizitasuna eman nahi diogu bertsozintzari"

20:30ean, eta saioaren araberakoa izaten da iraupena. Hau da, gustura bagaude, gaua ondo sartu arte egon gaitezke.

Zein da bertsogintza irakasteko metodoa?

Bizitzako beste hainbat gauzen antzera, egiten ikasten da. Doinuak ikastea garrantzitsua da; hainbat doinu ditugu eta abesten zoazen heinean, barneratzen joaten zara. Errimei dago kienez, trikimailuak ikasten ditugu. Baina gakoa da behin eta berriz lantzea.

Bestalde, Bertso gunea ekimen erabat parte-hartzailea izatea da garrantzitsuena guretzat, ez dago ikasle eta irakaslerik.

Aurreikusi al duzue jendaurrean saioaren bat egitea?

Gaztetxeak baldintza bakarra jarri zigun Bertso gunea bertan egiteko: noizean behin jendaurrean bertso saioaren bat egitea. Oraindik, baina, hasiberriak gara eta denbora dezente pasa beharko da horretarako. Agian, abenduaren 24an, Eguberriko jaialdian zerbaite egin daiteke...

Zerbait gaineratzerik nahi?

Jendea animatzen dugu parte-hartzera; bertan afaltzeko auke-ra izan ohi da, gainera.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Aparkalekua noiz kenduko zain, frontoia erabiltzeko



Santa Teresa auzoko birmoldaketako obretan, frontoia behin-behinerako aparkaleku moduan erabiltzea onartu zuela Udalak. Hala ere, Obenerreka auzoko hainbat herri-tar kexu dira: "Obrak aspaldi amaitu dira, eta frontoia parkinga izaten jarraitzen du", diote. Bada, Udalari esku-tu diote frontoia ahalik eta lasterren errekuperatzeko.

> ZERBITZUAK

Udal langileek bat egin dute sindikatuen greba deialdiarekin, Zapateroren neurrien aurka

Udal langileek batzarra egin zuten egubakoitzean, Jose Luis Rodriguez Zapaterok iragarri dituen krisiari aurre egiteko neurri-en kontra -funtzionarioei soldata %5 murriztea, esaterako-sindikatuek biharko deitu duten grebaren gainean bozketa egiteko. Parte-hartza inoiz baino altuagoa izan eta, eta baiezkoak irabazi zuen, argi eta garbi: 92 boto alde eta sei kontra.



Olinpiadetako gaztetxoak Munibeko karpan ere lehiatu dira eguraldi txarra egin duenean.

JARDUN ELKARTEA

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Albondiga Erreak taldea irabazole Jardunen olinpiadetan

Aurten 60 bat neska-mutiko ibili dira eta irabazleak Arcachongo aquaparkera joango dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Jardun euskara elkartek antolatutako olinpiadak bukatu berri dira eta irabazleak Albondiga Erreak taldeko kideak izan dira.

Laugarren, bosgarren eta sei garren maitetako neska-mutikoen hartu dute parte olinpiadetan, zortzi taldetan banatuta -60 bat gaztetxo-, eta primeran pasa dute.

Lau zapatutan barrena aritu dira lehian eta askotarik probak egin dituzte: herri kiro-lak, boloak, toka eta igela, igeri-

lekuko probak eta Jarduntxoren jolasak.

Bada, talde bakoiak zapaturo jasotako puntuazioa zenbatu eta gero, Albondiga Erreak taldeak batu ditu gehien, eta, ondorioz, haiek izan dira aurtengo edizioko irabazleak.

Hori horrela, Jardunetik aurreratu dutenez, irabazitako saria egun bateko irteera da. Hain justu ere, Arcachongo aquaparkera joango dira uztailaren 7an.

BERTSO-IKUSKIZUNA EKAINLEAN

Bestalde, Jardunek ikuskizuna antolatu du ekainaren 4rako. *Mende baten aldariak hogeigarrenean jarriak* delako bertso-ikuskizuna egingo dute Jon Maia eta Xabier Amuriza bertsolariak. 22:00etan izango da, Zabalotegi aretoan, eta ez da sarrerarik ordaindu beharrik egongo.

Ikuskizun horretan, XIX. mendeko gertakizunak kontatuko dituzte Maiak eta Amuritzak, garaiko bertsolariek jarritako bertsoen bidez. Batik bat, orduko egoera politiko eta sozialaz arituko dira.

EUSKARA > UEMA

Herrien arteko Xiba jokoetan izena emateko epea zabalik

Ekainaren 12an izango den UEMA eguneko herri arteko jokoetarako taldea osatu nahi dute

M.B. > BERGARA

Udaleko Euskara Zerbitzuak UEMA egunean egingo diren herri arteko Xiba jokoetarako taldea osatu nahi du. Ekainaren 12an ospatuko da UEMA eguna, Mallabian, eta beste hainbat ekitaldirekin batera jokatuko dira herrien arteko olinpiadiak.

Taldeak zortzi lagun izan behar ditu: lau gizonezko eta lau emakumezko. Jokoei dago-

kienez, ez dute aparteko indar edo abileziarik eskatzen eta edonork egiteko modukoak izango dira. Hauek dira aurreikusita dauden jokoak: ingudea, sokatira, bertsotan, toka, auzolana -lokots batzea eta antzekoak-, egur pilatzea eta Aras Lama.

Izenematea da maiatzaren 31ra arte Udaleko Euskara Zerbitzuan (943 77 91 66) edo UEMAn (946 27 91 95).



Ingude proba iaz, Bergarako Pazkoetan.

GOIENKARIA

AISIALDIA > UDAKO KIROL IKASTAROAK

Izenematea zabalik udako kirol kanpainako ikastaroetarako

Ekainaren 4ra arte egongo da zabalik izenematea umeen zein helduen kirol eskauntzan

M.B. > BERGARA

Hasi da uda kanpaina Agorrosin Ekintza Gunean. Udal kirol eskauntza berezia ekainaren 28an hasiko da eta dagoeneko zabaldu dute eskauntza horren baitako ikastaroetan izena emateko epea.

Hain justu ere, ekainaren 4ra arte eman ahal izango da izeña Agorrosin Ekintza Guneko harreran edo 943 77 70 95 telefono zenbakian.

UME ZEIN NAGUSIENDAKO

Iaz bezala, ume zein nagusien-dako eskauntza berezitua eska-niko dute. Umeen -2 eta 18 urte artekoak-eskauntzaren baitan



Umeak igeriketa ikastaroan.

oharrak

IBILALDIA 2010

> Ibilaldi jaira joateko autobusa antolatuko du Aranzadi ikastolak

Txartelak eskura daitezke idazkaritzan hilaren 28ra arte, 08:30-18:00 ordutegian. Ibilaldia maiatzaren 30ean ospatuko da aurten eta Bermeon izango da.

ZOKZETA

> Pilota elkartek eman ditu, dagoeneko, zokzetaren sariak

5974 zenbakia egokitzaio lehenengo saria, buruz buruko pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro, eta Ibon Etxabarri izan da saritua. Bigarren saria 9066 zenbakia-ri egokitzaio eta bi pertsonarendako aste bukaera Kantabriako Palacio De Guevara hotelean eta 250 euro, Gorka Irizarrek jaso ditu. Hirugarren sariari dagokionez, 3921 zenbakia-ri egokitzaio eta bi lagunendako afaria Erreki jatetxeen eta 100 euro Estitxu Aranzabalek jaso ditu.

BERTSOLARITZA > SAIOA

Bertso jaialdian parte hartuko dute herriko 321 neska-mutikok etzi

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik DBHrainoko ikasleek bertsolaritza eta ahozkotasunari buruz eskoletan ikasitakoa erakutsiko dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Herriko lau ikastetxetako ikasleek bertso jaialdia egingo dute etzi Zubikoa kirolegiko pilotalekuaren. Guztira, 321 neska-mutikok igoko dira oholtza gainera, ikasturtean zehar bertsolaritzari eta ahozkotasunari buruz ikeri dutena erakusteko.

Bi saio egingo dituzte, 17:00etan bata eta 18:30ean bestea. Lehenengo saioan parte hartuko dute Txantxiku ikastolako 4. eta 5. mailetako 94 ikaslek; Elkar Heziketa 6. mailako 30 neska-mutikok; Errekalde herri eskolako 5. mailako 18k; eta Elkar Heziketa DBHko 30ek. Bigarrenean,

an, aldiz, Txantxiku ikastolako 6. mailako 35ek; Elkar Heziketa 6. mailako 30ek; Errekalde herri eskolako 6. mailako 7k; eta Zuanola DBHko 47k jardungo dute.

OINARRIZKO KONZEPTUAK
Guztiekin erakutsiko dute bertsolaritzari eta ahozkotasunari

buruzko eskoletan zer ikasi duten. Astero ordubeteko eskoletak jaso dituzte, eta, bi astean behin, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko irakaslearen bisita izan dute. Herriko ikastetxeetan irakasle lanak egin dituzte Iñaki Olalde, Estibalitz Alberdi eta Nerea Urrak.

Hilabete hauetan bertsolaritzaritzaribide erabili dute ahozkotasuna lantzeko. "Bertsolaritzaren oinarrizko kontzeptuak irakatsi dizkiegu: kopla, errimak, silabak,

doinuak... Gainera, kontzeptu horien bidez ahozkotasuna, irudimena eta euskara landu dute", esan digu Iñaki Olalde.

Jendaurrean abesterakoan zer sentitzen duten jakingo dute etzi. Guztiekin botako dituzte bertsoak, eurek egindako kopla. "Guk gaiak proposatu dizkiegu, eta guztiaren artean aukeratu ditugu egokienak. Baina oholtza gainean eurek egindako bertsoak abestuko dituzte. Originalak dira bertso guztiak", dio Olalde.

ESANAK

"Bertsolaritzaren oinarrizko kontzeptuak ikasi dituzte: kopla, errimak, doinuak, silabak..."

"Guk gaiak proposatu dizkiegu, baina oholtza gainean eurek konposatutako bertsoak kantatuko dituzte"

Iñaki Olalde > Irakaslea

Hasi dituzte Errekalde auzoa eraberritzeko lanak

Egun batzuetako atzerapenarekin hasi dituzte Errekalde auzoa eraberritzeko lanak. Ezkerreko espaloian hasi dituzte lanak. Hesituz egin dute eta lurra zulatzen hasi dira. Auzoa berritzeko lanak zazpi fasetan egingo dituzte. Orain lehena egiten dihardute; hain zuzen ere, Moiua kaleko bidegurutzetik Errekaldeko 26. zenbakiraino doan ezkerreko espaloian.

Zapateroren gobernuak emandako diruarekin itxura aldatuko diote auzoari, eta oinezkoek lehentasuna izango dute.



MIREIA BIKUÑA

HEZKUNTZA > OSPAKIZUNA

Elkar Hezi ikastetxekoek bi eguneko jaialdia egingo dute

Eguenean eta egubakoitzean hainbat ekintza egingo dituzte

M.B. > OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek eta irakasleek bi eguneko jaialdia egingo dute. Eguenean eta egubakoitzean hainbat ekintza egingo dituzte, ikastetxeen bertan eta Santa Marina plazan.

Eguenerako gurasoendako emanaldia antolatu dute. 6. maiako ikasleek dantzaz, musikaz

eta bertso musikatuz osatutako *Lan baten bila* antzerkia egingo dute, 18:30ean.

AFARI-MERIENDA

Egubakoitzean beste emanaldi bat egingo dute: 14:30ean ikasleendako eta 18:30ean gurasoendako. Jaialdia bukatu ondoen afari-merienda egingo dute Santa Marina plazan. Ogitarrekoak, sagardo dastatzea eta kupeletik txotx egiteko aukera eta txosna zerbitzua egongo dira. Gainera, Miren, Gorka eta Agur taldeak erromeria egingo du.

ZIRKULAZIOA > OHARRA

Eguaztenetik ekainaren 8ra plazako aparkalekua itxita

Barrakak dauden bitartean Olaiturrin eta osasun etxearen atzean utz daitezke autoak

M.B. > OÑATI

Plazan, gaztelekuaren ondoan dagoen aparkalekua itxita egongo da autoendako eguztetenetik aurrera. Hain zuzen ere, ekainaren 8ra arte ezingo da auto-rik utzi, Corpus jaietako barrakak egongo dira-eta.

Udaltaingotik aditzera eman dugutenez, lehen barrakak etzi helduko dira Oñatirira, eta herrian egongo dira jaiak bukatu arte. Bien bitartean,

autoak kirolegiko lur azpiko aparkalekuetan, osasun etxeeko aparkaleku edo Olaiturrin utz daitezke.

BARRAKAK, MERKEAGO

Bestalde, barraketako bidaiaiak iazko prezio berean salduko dituzte: 1,50 eurotan. Baina egun baten, maiatzaren 29an, bidaiaiaren prezioa merkeagoa izango da: egun horretan euro baten salduko dituzte txartelak.

oharrak

BIRZIKLAPENA

> Baserrietako plastikoak batuko dituzte bihar

Oñatin lau puntutan jasoko dituzte plastikoak: Zañartun, Zuazola inguruau; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta ETE-Oren atzeldean. Siloa estaltzeko eta belar boletako plastiko beltza; berotegietan erabiltzen den plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria batuko dituzte.

HITZALDIA

> Sare sozialen gaineko ikastaroa gurasoendako

Tuenti eta Facebook gurasoendako. Kontrol eta ikuskatze sistemak delako hitzaldiak egingo dituzte Txantxiku ikastolan ekainaren 7an eta 10ean.

ARETXABAleta-ESKORIATZA

ARETXABAleta > DIRULAGUNTZAK

Gazteen egitasmoak laguntzeko deialdia

Kultur jarduerak eta produkzioak, GKEen proiektuak, eta lehenengoz gazteen egitasmoak aurrera eroateko dirulaguntza deik egin ditu Udalak

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Egunotan argitaratu ditu Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hainbat dirulaguntza deialdi. Lagunza horiek dira kultura jarduerendako, kultura produkzioak eta grabazioak egiteko, gazteen egitasmoendako, Gobernuz Kanpoko Erakundeen proiektuetarako eta gizarte zerbitzuaren lan egiten duten erakundeendako.

GAZTEEN SORMENA SUSTATZA
Gazteen egitasmoak aurrera eroateko laguntzen deialdia lehenengoz egin du Udalak. Gazteria Zerbitzuak proposatu du eta 16 urte beteta baina 21 urte baino gutxiago dituztenendako da. Lehenengo urtea arrakasta neurtzeko izango denez diru kopuru txikia bideratu dute, 600 euro hain zuzen.

Lagunza horren helburua da gazteen zaletasunak, sormen ekintzak edo antzeko egitasmoak aurrera eroateko laguntza ematea dirua traba izan barik. Eskaera aurkeztutako guztien artetik bi bakarrik hautatuko



Gazteek txalaparta ikastaroan gaztelekuau.

GAZTELEKUA

dituzte eta 300 euro emango dizkiote bakoitzari. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 1ean beharko dute taldekoide erdiek.

GRABAZIOAK EGITEKO LAGUNTZA
Aurten egindako kultura proiektu eta jarduerak laguntzeko deia ere egin du Udalak eta 20.000 euro bideratu ditu horretara. Irabazi asmo bako taldeek antolatutako kultur ekimenak lagunzea du helburu eta beste ekimen batzuen osagarri edo gizarte intereseekoak izan beharko dute.

Grabazioak egiteko maste rrak eta beste kultura produzio batzuk ere lagunduko dituzte, herriko taldeen produzioak sustatzeko asmoarekin. 3.000 euro bideratu dituzte horretara eta eskaerak aurkezteko epe-

rik ez dute ezarri. Lagunza jasotzeko Aretxabaletakoak izan beharko dute taldekoide erdiek.

GKE-ENDAKO 83.000 EURO
Gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten taldeek ere jaso ditzakete laguntzak eta 5.300 euro dituzte horretarako.

Eta garapenerako lankidetza egitasmoak dituzten GKEenda ko lagunza ere iragarri dute eta 83.000 euro dituztela horretarako jakinarazi; baina kopuru horren %10 gorde egingo dute urtean zehar gerta daitezkeen larrialdietara bideratzeko era bili ezean banatzeko izango da urte bukaeran-. Gipuzkoarra izan behar du talde eskatzaileak eta lehentasuna izango dute aretxabaletarrek.



M.A.

Bertsotan ederto moldatzen direla erakutsi dute

Ikasturtean zehar bertsolaritza landu duten ikasleek ondo baino hobeto moldatzen direla bertsotan erakutsi dute. Arizmendi ikastolako Almen guneko 60 bat ikasle eta Kurtzebarri eskolako 30 bat elkartu ziren egunean, hilak 20, Iturrigorri frontoian. Lotsak alboratu eta aurrez gertatutako bertso ederrak bota zituzten, tartean Aretxabale tak dituen gabeziak agerian utzi eta konponbideak eskatzen bertsoa.

ESKORIATZA > GIZARTE ZERBITZUAK

Adinekoen zaintzaileendako prestakuntza ikastaroak

Udalak eta Ingemak elkarrekin antolatu dituzte eta izenemate epea gaur zabaldu da

M.A. > ESKORIATZA

Zure nagusiak maite dituzunet hobeto zaintzen ikas ezazu leloarekin adineko ezinduak zaintzen dituzten senideendako ikastaroa antolatu dute Matia Gerontologia Institutua Fundazioak, Ingeima, eta Eskoriatzako Udalak elkarlanean. Ekainaren 7a eta 11 bitartean gai ezberdinak gaineko bost berbaldi egingo dituzte Ibarraundi museoan (15:00-17:00). Berbaldi guztiak debalde dira baina izena aurrez eman behar dute interesatuek Udal Gizarte Zerbitzuetan (943 71 31 36). Gaurtik ekainaren 2ra bitartean egongo da zabalik izenemate epea -astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:30-.

ZAINTA ZELAN HOBETU

Gai guztiz ezberdinak landuko dituzte adinekoen senideendako antolatutako berbaldietan, ezintasunak dituztenen zaintzan alderdi askok eragiten dutela jakinik. Hala, Hurkoa fundazioko kideek lege eta etika kontuen gainean jardungo dute: ezintasunak dituztenen tutoretza; alderdi fiskalak; lanean eragina...

Lagunza teknikoak eskanitzenten dituzten Icavi Bikain taldekoek, osteria, ezinduak behar dituzten zaintzen gainean jardungo dute: elikadura eta garbitasuna; lehen sorospenak; etxebizitzan egin beharreko aldaketak eta segurtasun neurriak...

oharrak

ESKORIATZA

> **Etxeko suteetatik babesteko berbaldia bihar**

Etxean sutatik babestu zaitz ezineko berbaldia egingo dute bihar, hilak 25, kultur etxeen (17:30) Kutzak lagunduta.

ESKORIATZA

> **Ipuin kontaketa Peio Añorga-rekin egunean**

Umeendako ipuin kontaktea saioa egingo du Peio Añorga kontalari ezagunak bibliotekan, egunean (18:00). Giza baloreak lantzeko ipuinak kontatuko ditu.

ARETXABAleta

> **Euskal Herriko paisaiaren gai-neko berbaldia**

Aste Berdearen barruan, Euskal Herriko paisaiaren gainean jardungo dute Joseba Erre kondok eta Asier Galdosek. Eguenean izango da hori, Arkupe kultura etxeen (19:00).

ARETXABAleta

> **Ezker abertzalearen proposamenaren aurkezpena**

Zutik Euskal Herria ezker abertzalearen proposamen berria aurkeztuko dute ekainaren 1ean, martitzena, Arkupe kultura etxeen (19:00).

IRIARTE

*Umeen denda
•
Helduen lentzeria*



Durana 8

Tel.: 943 79 10 96

ARETXABAleta

ARAMAIO > EUSKALTZAINDIAREN EKITALDIAK


Patxi Uribarrenen sarrera ekitaldia egubakoitzean

Euskaltzaindiak hileroko batzar nagusia egingo du goizean udaletxean; Patxi Uribarrenen omenezko ekitaldia arratsaldean, San Martinen

EDU MENDIBIL > ARAMAIO
Patxi Uribarren aramaioar euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia izango da egubakoitzean, hilaren 28an, Ibarrako San Martin elizan. Hain zuzen ere, *Zirelako gara, garelaiko izango dira izenburuko hitzaldia egingo du Uribarrenek*. Erantzuna, berriz, Jose Luis Lizundiak emango dio, *Ganbareatu Araba euskaldunera izenburuko hitzaldiarekin*.

Ekitaldia 18:00etan hasiko da eta Patxi Uribarrenekin batera hantxe izango dira, besteak beste, Andres Urrutia Euskaltzaindiko presidente eta Asier Agirre alkatea. Agirren ongi-etorriaren ondoren, Andres Urrutiak hartuko du hitza eta jarraian Patxi Uribarrenen txanda izango da.

Patxi Uribarrenen omenezko ekitaldia aprobetxatuz, Euskaltzaindiak hileroko batzar nagusia egingo du egunean berrian, goizean, Aramaioko udaletxean. Era berean, Euskaltzaindiak erakusketa berezia prestatu du Sastiñako ermitan: Euskaltzaindiaren historia laburra eta Patxi Uribarrenen argitaratutako lanak daude ikusgai.



Patxi Uribarren euskaltzain osoa.

GOIENKARIA

Patxi Uribarren Aramaioko Etxaguen auzoan jaiotakoa da; nahiz eta bere bizitzaren zati handi bat herritik kanpo igaro duen, betidanik izan du lotura oso estua Aramaioarekin. Sarri etortzen da jaioterrira, familia berrian dauka-eta. Hain zuzen, horixe izan da sarrera-hitzaldia Aramaion egitea aukeratzeko arrazoi nagusia.

HERRITARREI GONBIDAPENA

Udalak ere hartu du parte ekitaldiaren antolakuntzan: herriko txistulariek, dantzarieki, trikitilariek eta Bizente Goikoetxea abesbatzak hartuko dute parte, besteak beste. Egubakoitzeko ekitaldira 200 lagundik gora gonbidatu dituzte, baina ekitaldia irekia da; interesa duen edonor joan daiteke.

LEINTZ GATZAGA > ERRETIRATUAK

Kantabriako Isla eta Noja herriak ezagutzera joango dira erretiratuak ekainaren 4an

Izena emateko epea zabalik dago domeka arte eta Toki Ederreko zuzendaritzako kideei jakinarazi behar diete interesatuek

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Toki Eder erretiratuen elkartek irteera egingo du datorren ekainaren 4an, egubakoitzza. Kan-

tabria aldera joango dira, kostaldean dauden Isla eta Noja herriak ezagutzeko asmoan.

Santander hiriburutik 50 bat kilometrora daude bi herriak, elkarrengandik oso gertu, eta, eguraldia lagun izanez gero, paraje ezin politagoak dituzte biek. Herriko altxorrik ezagutzeko aukera izango dute, Islako kondeen jauregia eta Nojako San Pedro eliza esaterako, eta inguruko bazterrak ere bai; tartean, hiru kilometro eta erdi dituen Trengandin hondartzta. Gero Isla

inguruko jatetxe baten bazkalduko dute, eta, etxera bidean, Biskai aldean geratuko dira beste bisitatxo bat egiteko.

AZKEN EGUNA, DOMEKA

Izena emateko epea zabalik dago domekara arte, hilak 30. Horretarako, Juan Mari Makatzaga edo Tere Aranburuzabala zuzendaritzako kideekin egin behar dute berba. Izenemate data errespetatzeko eskatu dute antolatzaleek, jatetxeen lekua gorde eta autobusa eskatu behar dutelako.



Erakusketa Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

MIREIA BIKUÑA

ELGETA > INGURUMENA

Ehun-hondakinen gaineko erakusketa Espaloian

Emaus erakundearen eta Udal Ingurumen batzordearen eskutik, arroparen berrerabilpena eta birziklatzea aztergai

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Ehun-hondakinen kudeaketa, berrerabilpena eta birziklatzea ez dago oso zabalduta. Nola eta zeragatik egiten den ezagutzera emateko erakusketa egongo da ikusgai Espaloian hilaren 26tik aurrera. *Ezagutu formularik iraunkor eta solidarioena: + 3R = - CO2* izeneko kanpainaren barruan kokatu behar dugu ekinema, eta, besteak beste, sentsibilizazioa du helburu.

DATU DEIGARRIAK

Emausko Begoña Cabaleiroren esanetan, ehun-hondakin gehiago sortzen dugu. "%80 emakume arropa da, eta egoera onean dagoena. Helburua da zabortegian amaitu beharrean, berrerabiltea". Edukiontzizurira arropa garbia eta erabilteko modukoa botatzeko eskatzen dute Emaustik. Informazio gehiago zabaltzearen erakusketan emango dute.

ANTZUOLA > IKASTAROA

Bihar hasiko dute memoria lantzeko ikastaroa

Erretiratuek Biziakirekin batera antolatutako ikastaroa izango da

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Bihar hasiko da erretiratuen elkartean egin behar duten memoria lantzeko ikastaroa. Biziakiren laguntzarekin antolatutako ikastaroa izango da. Erretiratuen elkartean izango den arren, herritar guztiei zuzendutako ikastaroa da.

ALDE TEORIKOA ETA ARIKETAK
Ikastaroak bi zati izango ditu: alde batetik, alde teorikoa lantduko dute. Besteak beste, ikasko dute memoriak zelan funtzionatzen duen.

Beste zatia alde praktikoa izango da. Memoria lantzeko hainbat ariketa egiten ikasiko dituzte ikastaroan parte hartzen dutenek.

Ikastaroak ematera dedikatzen den Eibarko enpresa bat arduratu da ikastaroaz.

BIZIKASI ZER DEN

Biziak Bergarako Migel Altuna institutuan dauka egoitza, eta Debagoieneko Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako (BOZI) bitartekotza zerbitzua da. Prestakuntza arautuan sartzea erraztasunak ematen ditu Biziak, batez ere, gizarteak kaltenetan diren kolektiboei.

Doako zerbitzua da, eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako.

Kirola



> FUTBOLA

Mondrak 1-0 irabazi zuen Bergararen kontrako derbia, zapatuan > **22**



> SASKIBALOIA

Aloña Mendi liga txapelketako irabazlea izan da > **24**



> TXIRRINDULARITZA

Caja Ruraleko Jordi Simon izan da azkarrena Bergarako lasterketan > **25**



Bergaran, San Martzialgo aldean behera jokatu zuten goitibehera lasterketa.

JOSETXO ARANTZABAL



Oñatin, Larraingainetik Errekalde auzora bitartean eskaini zuten ikuskizuna.

LANDER MUÑAGORRI

GOITIBEHERRAK > BI LASTERKETA ASTEBURUAN

'La gondola del amor' jaun eta jabe goitibehera lasterketetan

PARTE-HARTZEA

Bergaran, hamar goitibeherek hartu zuten parte; eta Oñatin, lau gehiagok eman zuten izena

BERRESKURATU

Azken urteetan ez zen era honetako lasterketarik egiten Debagoienean, eta orain berreskuratua da

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA
Maldan behera, abiadura bizian, eta irudimen askorekin. Horrela ibili dira asteburu honetan Oñati eta Bergarako goitibehera lasterketetan. Era guztietako ibilgailuak ikusi ahal izan dira, landuak eta juxtu-juxtu malda jaisteko modukoak. Goitibehera lasterketa batean parte hartzeko gauza handirik ez dela behar argi gera-

tu da: nahikoa da irudimena izan eta aldean behera joango den ibilgailu bat egitea.

BI LASTERKETETAN GARAILE

Zapatuko Bergarako lasterketan, hamar ibilgailuk hartu zuten parte. Hamasei urtetik beherako kategoriaian, Jokin Gutierrez izan zen garaile; eta hamasei urtetik gorakoan, bestalde, Asier Leizea eta

Gurutz Agirre gailendu ziren *La gondola del amor* izenarekin bataiada duten goitibeherarekin.

Oñatiko atzoko txapelketan, bestalde, hamalau ibilgailu joan ziren Larraingainetik behera. Tartean zeuden Bergarako parte-hartzialeetako batzuk eta, berriz ere, Leizea eta Agirre gailendu ziren, kasu honetan neumatiko kategorian. Errodamendu kategorian, Gueñes goitibehera izan zen nagusi; eta arinaten, azkenik, Kaiser.

Azken urteetan ez zen goitibehera lasterketarik egiten Debagoienean. Asteburu honetan ordea, bi egin dira. Parte-hartztea altua izan da, eta pilotuek sentsazio onak izan zituztela nabarmendu dute. Hemendik aurerra lasterketa hauek urteroko zita bihurtzeko, badaude nahiko arrazoi, hortaz.

'LA GONDOLA DEL AMOR' GOITIBEHERA

Autoa bezain azkar doan goitibehera

"la auto bat bezala da, abiadura handia hartu dugu berarekin" dio Asier Leizea pilotuak bere goitibeherari buruz hitz egiterakoan. Oñati eta Bergaran, azkarrean izan zen *La gondola del amor*, baina gainerako goitibeherek badute kontsolamendua, pasa den urtean Asier Leizea eta Gurutz Agirre Spainiako Txapelketako garaile suertatu baitziren.

Goitibehera puntuari jartzeko ordu asko sartu duten arren, ibilgailua ez da Leizea eta Agirre egindakoa. "Bergarar batek egin zuen eta txapelketak utzi zituenean erosi egin genion".



Leizea eta Agirre.

L.M.

OHOREZKO ERREGIONALA > 33. JARDUNALDIA

Gola eginez utzi du futbola 'Keixi'-k

Urte mordoa eta gero futbola utziko du 'Keixi'-k; zapatuan omendu egin zuten Mojategin

Derbiak ez zuen bizitasunik izan; Bergarak ondo eutsi zuen baina gola Mondrak egin zuen

MONDRA
1-0
BERGARA

Mondra > Mikel (Errasti, 75. min.), Mercader, Illart (Castillo, 60. min.), Oier (Nuñez, 45. min.), Laspur, Zabala, Pavon (Azpeitia, 75. min.), Ekin, Murua, Keixi eta Maikel.

Bergara > Imanol, Garitano (Oregi, 45. min.), Beñat, Inurria, Agirre, Loyola, Agirrezabal, Arazkonaga, Nafarrete, Jon eta Iraola.

Gola > 1-0: Keixik, 35. min.

IKUSTEKO JOKO ESKASA

Etxeko lehenengo aukera Muruak izan zuen: eskuin hegaletik erdiratutako baloia buruz jo zuen Muruak, baina baloia ate-zainaren eskuetara joan zen zuzenean.

35. minutuan egin zuen Mondrak gola: area ertzean adierazitako falta *Keixi*-k jaurti zuen, eta baita gol bikaina lortu ere. Eguna borobiltzeko modu paregabea izan zen Arrasateko erdiariarendako gola egitea.

Aldagelatik bueltan bi entrenatzaleek hainbat aldaketa egin zitzuten. Hala ere, partiduaren nondik norakoan ez zen nabari-tu. Bergarak ondo eutsi zuen erdialdean eta gola egiteko aukerak sortu zituen arren, mahone-roak ez ziren gauza izan Mondraren atea hausteko.

Partiduko 70. minutuan ber-gararrek Martini egindako penaltia eskatu zuten; epaileak, baina, Bergarako aurrelaria bere burua bota zuela esan eta ez zuen ezer adierazi. Jokaldi haren ondorioz, Martinek zelaia utzi behar izan zuen lepaiztaian min hartuta eta ospitalera era-man behar izan zuten. "Penalti garbia egin diote; jokalari batek bere burua botatzen duenean ez



Ekain Garin baloiarekin Bergarako kontrarioa ondoan duela.

JOSETXO ARANTZBAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Zapatuko derbiko protagonista nagusia Ander Bereziartua *Keixi* izan zen. Mondraren eta Bergaraken arteko lehiak ez zuen emoziorik izan; bi taldeek ezer ez zuten jokoan eta, ondorioz, hori nabaritu egin zen zelaian. Hala, partiduko omenduak hartu zuen protagonismoa Mojategin.

Partiduaren erritmoa Bergarak jarri zuen hasieratik. Zelai erdian nagusitu egin ziren Manu Diazen mutilak eta aukera garbirik sortu ez zuten arren, mahone-roendako izan ziren aukera apur bakarrak lehenengo minutuetan.

du minik hartzen", esan zuen haserre Manu Diaz entrenatzai-leak partidu amaieran.

EPAILEAREN LANAREKIN HASERRE

Penaltian eta, orokorrean, partidu guztian epaileak izan zuen jarrera salatu zuen Bergarako entrenatzaleak. Mahoneroek gogor lan egin zuten arren, aznean esku hutsik itzuli behar izan zuten Arrasatetik.

"Gu, Mondra baino gehiago izan gara eta aukera gehiago izan ditugu, baina gola eurek egin

dute", adierazi zuen Diazek. Gainera, epailearen lana kritikatu zuen eta, beste behin, "epailearen erruz" galdu dutela esan zuen Bergarako entrenatzaleak.

AGURREN ARRATSALDEA

Azken urteetan Mondrako kapitan izandako *Keixi*-k futbola utziko du. Hala, zapatuan etxe-koen omenaldia jaso zuen. Partidu hasieran, Muxik, Argide-rek Aranak eta Rubenek aurreskua dantzu zioten Mondrako 10ari. Ondoren, Patxi de Andres

presidenteak oroigarria eman zion; eta, Iker Laspurrek, jokalari guztiak sinatutako kamiseta. *Keixi* "oso pozik" zegoen egin zioten omenaldiarekin. Gainera, partiduko gola egin zuen: agurra borobiltzeko modu ezin hobea. Aurrerantzean futbolaren harremanetan jarraituko ote duen galdetuta, oraingoz ezetz, aste bukaera "lasaiak" izan gura dituela esan zigun *Keixi*-k.

Andoni Azkargortak ere taldea utziko du; zapatuko etxeko azkeneko lehia izan zuen.



Mondrako jokalariek pasilloa egin zioten *Keixi*-ri.



A.E. Muxi, Argider eta Ruben aurreskua dantzatzen.



A.E. Laspur eta *Keixi* garaikurrekin.

A.E.

EMAKUMEZKOAK > KOPAKO FINALA

Arrasateko neskek ezin izan dute Kopa irabazi eta denboraldia borobildu

MONDRA

1-4

EIBAR

'Txisko' Lopezen neskak 1-0 irabazten hasi ziren arren gairaipenak ihes egin zien; lau gol jaso zituzten kontra

Denboraldi zaila izan dela adierazi du entrenatzaileak: atezain barik jokatu dute ia denbora osoan

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Arrasateko neskek ezin izan dute iaz lortutako Kopa garaipena berretsi. *Txisko* Lopezen neskak 1-4 galdu zuten zapatuan Eibarren aurka Bergarako Ipintza zelaian. Garaipenak ihes egin arren, entrenatzailea pozik eta harrozeoen neskak bai finalean eta baita denboraldi guztian ere egin-dako lanarekin.

IRABAZTEN HASI ZIREN

Arrasatearrek bazekiten zapatuko finala zaila izango zela; aurrean, Eibar talde beteranoa zeukan; eta, gainera, Arrasateko taldea baja askorekin joan zen Ipintzara.

Hala ere, gogor hasi ziren *Txisko*-ren neskak. Zelaian ondo kokatuta, baloia kontrolatzeko gauza izan ziren. Lehenengo gola penalti bidez egin zuten: kontraerasoko jokaldi baten Eibarko atzelariak baloia eskuarekin ukitu eta penaltia adierazi zuen epai-leak. Alaineak hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura eta ez zuen



Arrasateko neskak txapeldunordearen garaikurra.

JOSETXO ARANTZABAL

hutsik egin. Ondorioz, markagailuan aurretik jarri ziren arrasatearrak.

Pozak, baina, gutxi iraun zuen arrasatearren artean. Hurrengo minutuan, korner jaurtiketa batean, Arrasateko defentsak huts egin eta Eibarrek berdinketaren gola egin zuen.

ARRASATEARRAK BEHERA

Berdinetaren golak indarra eman zien eibartarrei. Aurrera egin zuten armaginek eta beste gol bat egiteko gauza izan ziren. Hala, bi gol aurka zituztela, arrasatearrak behera egin zuten jokoan eta baita animuan ere.

Aldagelatik bueltan arrasatearrak erasora atera ziren. Eibartarrek, hain justu, hori aproba-txatu eta kontraerasoan bi gol egin zituzten.

Hortaz, *Txisko*-ren neskek txapeldunordearen garaikurra-rekin konformatu behar izan zuten zapatuan.

ENTRENATZAILEA, POZIK

"Jokalariek gogoa eta ilusioa jarri dute... ezin zaie gehiago eskatu!", adierazi zuen partidu amaieran pozik *Txisko* entrenatzaileak. Gaineratu zuen, aurtengo oso denboraldi zaila izan dela: "Atezain barik jokatu dugu ia denboraldi osoan, jokalari bat jarri behar izan dugu atean".

Bi denboraldi eta erdi egin ditu *Txisko*-k Mondran; iaz Kopa irabazi zuten eta aurten bigarren egin dute. Nesken futbolak laguntza handiagoa behar duela gaineratu du: "Nesken futbola oso ikusgarria da, benetan merezi du ikustera etortzeak".



Jokalaria baloiarekin, aurkaria gainean duela.

J.A.

OIARTZUN

2-0

ALOÑA MENDI

OHOREZKO ERREGIONALA > 33. JARDUNALDIA

Oiartzunen aurka galdua sufritza egokitu zaio Aloñari

A.E. > BERGARA

Azken asteotako bolada txarra ezin amaituta dabil Aloña Mendi. Zapatuan 2-0 galdu zuten Pablo Diazen mutilek Oiartzunen; modu horretan, ligako azkeneko jardunaldira arte sufritza tokatuko zaie oñatiarrei.

Diaz gustura zegoen jokalariak Karla Lekuona futbol zelaian izan zuten jarrerarekin. Partidu lehiatua izan zen; eta, entrenatzailearen arabera, jokalari guztiek egin jokatu izanak eta berotak eragina izan zuten azken emaitzan.

PENALTIA GARBIA

Oñatiarrek lehenengo gola lehen zatian egin zuten; ondoren, aldagelatik bueltan, emaitza berdinatzeko aukera paregabea izan zuen Aloñak: penalti garbia egin zioten Aloñari baina epai-leak ez zuen ezer adierazi. Ondoren,

Oiartzunen bigarren gola etorri zen, eta partidua hor amaitu zen.

Aloña sailkapeneko 13. tokian dago 41 puntuarekin. Liga amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean, azkeneko postuak erabakitzeko daude. Datorren astean Hernaniren bisita izango dute.

> ERREGIONAL PREFEREN.
Antzuolak denboraldia 9. postuan amaitu du

Joan den astean amaitu zuen liga Antzuolako taldeak (Antzuola 0-3 Anaitasuna). Bigarren itzuli eskasa egin ostean, azkeneko postuak gertu izan zituzten antzuolarrak. Hala ere, mailari eus-tea lortu du Igor Larrea eta Iban Unanuek zuzentzen duten taldeak. Antzuolarrak 9. postuan amaitu dute liga 37 puntuarekin.

ESKUBALOIA > KOPA

Arrasatearrak kopako finaleko atarian geratu dira

Joan den astean atzeratutako lehia jokatu zuten Zapatuan Eibarren eta 39-35 galdu zuten

Jokalari garrantzitsuen falta izan zuen Edu Orgazentzako taldeak eta hori nabaritu egin zuten

ARRATE
39-35
FORD MUGARRI

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Kopako finala eskuetan izan dute arrasatearrek, baina azkenean finala jokatu barik geratuko dira. Zapatuan jokatu zuten Arrateren aurka finalerdia; 39-35 galdu zuten Edu Orgazentzako mutilek.

JENDE GUTXI
Orgaz jokalari gutxirekin joan zen Eibarrera. Jokalari garrantzitsuak, gainera, falta zituen: Jorge Santos, Kepa Isasmendi eta Jonan, besteak beste. Hala ere, arrasatearrak ez ziren kikildu eta indartsu irten ziren kantxara. Lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen. Bi taldeek egin

zituzten merituak markagailuan aurretik ibiltzeko. Hala ere, atsedenera eibartarrak aurretik joan ziren: 23-20.

"Hainbat unetan markagailuan aurretik izan gara, nahiko lehia berdindua izan da", azaldu du Orgazentzako entrenatzaileak.

BIGARREN ZATIA

Bigarren zatian arrasatearrak indartsu atera ziren. Markagailuan aurretik jarri ziren, bi goleko aldearekin. Gainera, joko ona egin zuten. "Azken minutuetara, baina, nekatuta iritsi gara. Kontuan hartu, jokalari gutxirekin joanda, bi aldaketa egiteko aukera besterik ez dugula izan", azaldu du Orgazentzako entrenatzaileak.

DEFENTSA ONA

Bi taldeek 6-0 defentsa egin zuten. "Defentsan serio jokatu dugu eta pozik nago jokalarietako orokorrean egin duten lanarekin", gaineratu du Orgazentzako entrenatzaileak.



Ford Mugarririk jokalaria jaurtiketa egiteko gertu.

ARTXIBOA

Atzoko partiduaz bakarrik ez, orokorrean denboraldi guztian egindako lanarekin dago pozik Edu Orgaz. "Gutxi falta izan zaigu lehenengo mailako igoera fasea jokatzeko eta azkenean kopako finalean ere, atarian geratu gara", esan digu Orgazentzako entrenatzaileak.

"EZ nuen espero hain denboraldi ona egingo genuenik. Egia esan, jokalari guztien jarrera oso ona izan da eta pozik nago

egin duten lanarekin", gainera du Orgazentzako jokalari. Zapatuan, esaterako, bigarren taldeko hiru jokalari izan ziren Eibarren, eta entrenatzailearen esanetan oso ondo ibili ziren.

DATORREN URTEAN, ZER?

Behin finaletik kanpo geratuta, Ford Mugarririk bukatu du aurteneko denboraldia. Oraindik, datozen bi asteetan entrenatu egingo

dute, eta Orgazentzako adierazi digu datorren denboraldiari buruz berba egingo duela zuzendaritzat taldearekin.

Kopa txapelketa liga moduan jokatu dute. Sei taldeko bi multzo egin dute; eta, multzo bakotzko onenak jokatu du kopako finala. Kasu honetan: Arrate eta Ereintza. Ford Mugarririk bigarren geratu da, kopako finala jokatzea atarian.



Aloña Mendiko jokalariak garaikurrarekin.

ENEKO BLANCO

SASKIBALOIA > LIGA AUTONOMIKOA

Aloña Mendi liga txapelduna da azken lehia irabazi ostean

A.E. > BERGARA

Igoera eskuratuta, lehenengo postua zuen jokoan Zapatuan Aloña Mendik Ibaizabalen aurka. Oñatiarrek denboraldi oso ona egin dute, eta liga irabaztea

denboraldia borobiltzea litzatekeela argi zuten. Hala, indartsu atera ziren Galdakaoko kantxara Xabi Igartuak zuzentzen dituen mutilak. Gamarra, Anduaga, Mallabiarren,

Zabaleta eta Biain izan ziren hasierako bostekoan jokatu zutenak.

Emaitza (54-84) eta jokoak ikuista, argi dago oñatiarrek ez zute la arreiorik izan Galdakaoko kanplexan. Hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik oñatiarrek. Laurdenetako partzialak izan ziren: lehenengo laurdena, 15-18; bigarren laurdena, 8-28; hirugarren laurdena, 13-20; eta laugarren laurdena, 18-18.

LEHENENGKO NAZIONALA

Lehenengo aldziz historian Aloña Mendik lehenengo nazional mailan jokatuko du datorren denboraldian. Xabi Igartuak zuzentzen duen taldeak bi urtean bi maila igo ditu.

Aurten, denboraldi bikaina egin dute oñatiarrek: 25 partidu irabazi dituzte, eta bost bakarrik galdu. Gainera, azkeneko 16 partiduak jarraian irabazi dituzte. Hala, liga ko talde onena izan da Aloña.

Oñatiarren esku zegoen liga irabaztea. Zapatuan Ibaizabalirik irabaztea nahiko zuten; bigarren Santurtzi geratu da.

ESKUBALOIA > IGOERA FASEA

Puntu barik itzuli dira bergararrak Deustutik

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

31-29

BERGARA

Bigarren zatian, batez ere hasierako minutuetan, Deustuko taldeak distantzia handitza lortu zuen. Hala ere, mahoneroek ez zuten amore eman eta bi taldeen arteko tartea txikitu zuten. Berdinaketa ere esku zuten.

JOKALARI GUTXI

"Minutu askotan hainbat jokalari min hartuta izan ditugu, eta horien falta sumatu dugu", adierazi zuen partidu amaieran Muniategi entrenatzaileak.

Horrez gain, bero izugarria izan zuten Zapatuan arratsaldean Bilbon mahoneroek.

BI PARTIDU

Bi partidu falta dira Igoera fasea amaitzeko. Datorren astean Corazonistas hartuko dute etxe-an, domekan, 12:30ean.

TXIRRINDULARITZA > LEHENDAKARI TXAPELKETA

Caja Ruraleko Simon izan zen azkarrena Bergarako helmugan

Elgetatik behera zetorrela ihes egin zuen Jordi Simonek eta bakarrik sartu zen helmugan

Pello Bilbao bigarrena izan zen eta, gainera, mendiko sariko garaikurra irabazi zuen

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Bakarrik, ihes eginda iritsi zen Caja Ruraleko Jordi Simon atzo San Antonioko helmugara. 2:32:53ko denbora behar izan zuen Simonek 107 kilometroak egiteko, Pello Bilbao baino 17 segundu gutxiago.

Lasterketa hasi bezain laster talde handi bat tropeletik irten zen. Bergarakit Elgoibarrera haritu zuten txirrindulariek. Handik bueltan, ihes egindako 10 laguneko taldea pasa zen Bergarako saihestidetik lehenengo.

KANPAZAREN GORA
Epeleko bidegurutzena iritsi orduko, baina, tropelak eta taldekoak bat egin zuten. Hala, denek batera ekin zuten Kanpanzaren gora.

Kanpanzarko gainetik Elgetarako bidea hartu zutenean, Jordi Simon eta Pello Bilbaok tropeletik ihes egin zuten. Elgetan, Caja Ruraleko Jesus Herradak eta Seguros Bilbaoko Ramon Domenek bat egin zuten lasterketa buruan zeudenekin.

Elgetatik behera, Jordi Simonek lauko taldekoak ihes egin eta helmugara bakarrik iristea lortu zuen. Caja Ruraleko txirrindulariak ez zuen areriorik

Sailkapena

1.Jordi Simon	2:32:53
2.Pello Bilbao	2:33:10
3.Jesus Herrada	2:33:10
4.Ramon Domene	2:33:31
5.Juan Carlos Riutort	2:33:31
6.bai Salas	2:33:31
7.Jokin Lainzabarri	2:33:31
8.Alberto Guinea	2:33:31
9.Haritz Orbe	2:33:31
10.Cristobal Sanchez	2:33:31

ITURRIA: TXIRRINDULARI FEDERAZIO

izan azkeneko kilometroetan. Egiten zuen beroari aurre egin eta bakar-bakarrik sartu zen San Antonioko helmugara.

GARAIKURRAK

Pello Bilbaok ere ihes egin zuen azkeneko metroetan. Hala, bigarren sartu zen helmugan. Gainera, Bilbaok mendiko sariko garai-kurra jaso zuen.

Taldeko sailkapenari dago-kionez, Caja Ruralek eroan zuen talde onenaren saria; bigarren Naturgas sailkatu zen; eta hirugarren Seguros Bilbao. Lehendakari txapelpetako maillota, ostera, Ramon Domenek jantzi zuen. 107 kilometrotako lasterketa izan zen atzokoa.



Jordi Simon helmugara sartzen.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL


Bergarako I. erremonte txapelketa

Etxeberria IV.-Urrutia eta Urtasun-Lizaso finalerdiak jokatzeko sailkatu dira Bergarako I. erremonte txapelketan. Beste finalerdiak datorren zapatuan jokatuko dituzte. Etxeberria IV. eta Urrutiak 40-27 irabazi zieten Juaristi eta Etxeberria III.ari. Bestalde, Urtasun eta Lizasok 40-29 irabazi zieten Uterga eta Badiolari.

Espero bezala Xalak 22-16 irabazi dio Iker Arretxeri Bergaran

Xala eta Arretxe II.ak ligako azkeneko partidua jokatu zuten atzo Bergaran. Lekuineko aurrelariak jada finalerdiarako txartela eskuratuta zuen; hortaz, garrantzi gutxiko partidua izan zen atzokoa. Xala ez zuen partidu borobila egin; hala ere, 22-16 irabazi zion Iker Arretxeri, eta partidu guztian izan zen markagailuan aurretik.

Bero asko egin zuen atzo Bergarako Udal pilotaleku. Bi pilotariek gogor egin zuten lan, eta ondorioz partidu amainerara leher eginda iritsi ziren. Gainera, esan behar da, Arretxe II.ak partidu ikaragarria jokatu zuela atzo Bergaran.



JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Bergara Hiria: finalak gaur izango dira

Azken urteetan bezala GOITBk finalak eskainiko ditu bihar, 22:15ean

A.E. > BERGARA

Gaur jokatuko dituzte Bergara Hiria txapelketako finalak. 19:30etatik aurrera izango dira partiduak Bergarako Udal pilotaleku.

22 urtez azpikoetan, Jau-regik eta Aizpuru izango dira Ansotegi eta Lanaren aurkariak. Joan den martitzenean jokatutako finalerdieta Jau-regik eta Aizpuruk 22-19 irabazi zieten Mendenuetari eta Arriagari.

SENIORRAK

Nagusietan, maila handiko finala izatea espero da gaurkoak. Izan ere, joan den martitzeneko finalerdiko lehiak oso onak izan ziren. Gorkak bikain bete zuen Ontsaloren tokia eta Galarragarekin batera finalerako txartela lortu zuten 22-11 irabazita Yoldi eta Lintzoaini.

FINALA TELEBISTAN

Aurtengo txapelketa 15. eki-taldia da. Azken urteetan egin den bezala, GOITBk finalak eskainiko ditu bihar, martitzena, 22:15ean.

Ohiko denez, giro ederra eta zaleen babesa espero dute gaurko partiduetan.



Bergara Hiria Pilota Txapelketako finalak

SAIO BEREZIA

Martitzenean, maiatzak 25, 22:15ean.
Esatariak: Julen Iriondo eta Migel Etxaniz.

Goitb
Goiela Telebista

Ikustekoa!

Babesleak:

INDUSTRIAS
Z
ANGUITU

BOLINTXO
OKINTEGRITA

GOKI ERREFORMAK, S.L.

Garikoitz Arregi > Txirrindularia

"Bost eguneko lasterketa, beroa, desertua... bizi iraupena zelako eman nuen izena"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Garikoitz Arregi berargarra Bergarako zikloturista taldeko presidente da. Ziklismoa gustuko duela argi dago: maiatz hasieran Marokon izan zen, Nissan Titan Desert proba jokatzen. Mendi eta desertua uztartzen dituen proba da. Han bizi izandako esperientzia azaldu digu ondorengo lerroetan.

Azaldu zelako lasterketa den Nissan Titan Desert.

Bost eguneko lasterketa da: lehenengo hirurak 100 kilometro ingurukoak, laugarrena luzeagoa, 150 kilometrokoak, eta azkena motza. Kontua da hirugarren etapa oso gogorra zela, eta, gainera, aldean eraman behar izan genituela gure gauza guztiek, egun hartan ez genuen-eta laguntzarik izan. HORTAZ, etapa gogorrena eta etapa luzeena elkartu ziren.

Zein da lasterketa honen berezitasuna besteekin alderatuta?

Desertuan mendi bizikleta-rekin ibili, Atlasean sartu... denektik du lasterketak. Gainera, road book bat ematen ziguten eta GPS

sistema ere erabili behar izan genuen; kontua da koordenada batzuk ematen dituztela eta hara joan beharra dagoela. Horrek ematen du aukera jolasteko: batzuek bide bat hartzen dute eta beste batzuek beste bide bat.

Egia da, baina, antolakuntzak ez duela sustorik gura izan eta bidea nahiko ondo markatuta zegoela.

Espero zenuen moduko izan da esperientzia?

Hasiera baten uste nuena baino samurragoa egin zait, agian ondo gertatuta joan naiztako. Orientazioa, beroa, desertua... hasieran beldur hori nuen, baina ez zait horren gogorra iruditu.

Entrenamendu berezirik ez dut egin. Urte hasieran Flandesko Tourrera joan ginan; aprobeta txatu genuen lasterketa hark 260 kilometro dituela entrenamendua egiteko. Horrez gain, mendian pixka bat ibiltzea nahikoa da; gainera, ez dut uste mendirako guztiz preparatuta egon behar denik. Mendi bizikleta da, baina ez da teknikoa.

ANTOLAKUNTZA

"Ez dute sustorik gura izan eta bidea ondo markatuta jarri dute inor ez galtzeko"

SENTSAZIO ONA

"Hasieran uste nuena baino samurragoa egin zait, agian ondo gertatuta nengoelako"

KANPAMENDUAK

"Ezer ez zegoen lekuak jartzen zuten kanpamenduan denetarik genuen"

Profesionalak izandako txirrindulari asko izan dira lasterketan?

Jalabert anaiak, Melchor Mauri, Mikel Astarloza, Cabestany, Olano... Gura dutena da lasterketa profesionalizatzea. Hasiera baten abentura kutsu handiagoa zuen lasterketa zen, baina orain oso profesionala da.

Bartzelonako talde batek antolatzen du; Paris Dakarren ibilitako jendea da, eta 20 urte daramatzate Marokon aktibitateak antolatzen.

Nolakoa izan da zuen egunerokotasuna?

Lehenengo eguna hotelean egin genuen, baina hurrengo guztiek kanpamenduetan izan ziren. Oso ondo antolatutako lasterketa da. Ezer ez dagoen toki baten jartzen dute kanpamendua eta denetik dago: dutxak, komuna, buffeta, medikuak...

Egunero mugitzen zitzuten kanpamenduak. Gurekin batera irteten ziren eta gu iritsi orduko dena gertu zuten. Lur orotariko ibilgailuak, helikopteroa... denektik zegoen.

Ibili zarete bai Atlasean eta baita desertuan ere. Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Askorik ez dut ikusi. Menditsua da oso, hirugarren etapian 2.000 metrora igo ginen eta ikusgarria zen.

Non dago horrelako lasterketa bat bukatzearen gakoia?

2007an Parisen egon ginenean 1.200 kilometro egin genituen. Normalean, horrelako lasterketa den jendearen batez besteko adina 40 urtetik gorakoa izaten da. Oso indartsua izatea ez da hain garrantzitsua; bai, osteria, erresistentzia izatea eta buruz gogor egotea. Etapa luzeak dira, hidratazioa garrantzitsua da, estomagoa, ipurdia... gaua horiek kontuan hartu behar dira.

Lasterketa bat baino gehiago, erronka bat dela esan daiteke?

Bai, hori da saldu gura izan dutena! Egia da oso onak direla saltzen. Eurek gura dutena da urtetik urtera gero eta gehiago izatea; adibidez, datorren urtean 500 parte-hartzale izatea gura dute! Baina izenemateak balio duena kontuan hartuta ez dut uste horrenbeste jendek izena emango duenik.

Erronkari dagokionez, bai, ni horregatik joan nintzen. Bost eguneko lasterketa, desertuan, orientazioa... bizi iraupena zela uste nuen, baina ez da horrenbesterako izan. Goizean egiten genuen lasterketa, eta momentu haietan sufrizten genuen, baina arratsalde guztia primeran egoten ginan, lasai. Jan, egon, beseei begiratu...

Zer da esperientzia honetatik nabarmenduko zenukeena?

Ezagutu dudan jendea; izan ere, horrelako lasterketetan beti egiten dira lagunak. Arazorik ez dudanez izan, sentsazio onarekin geratu naiz, berriro bueltatzeko gogoarekin. Baina beste modu batera bueltatuko nintzete; taldean eta babesleekin.

Etapa askotan bakarrik joatea tokatu zait. Nire asmoa zen esperientzia bizi izatea, baina bigarren egunerako ikusi nuen hora lasterketa bat zela. Egia esan, inguruak ikusi eta disfrutatzeko denborarik ez dut izan.

Izan duzu kontatzeko moduko anekdotarik?

Pello Ruiz Cabestanyren logola berean egin naiz, eta, egia esan, artista hutxa da. Bestalde, lehenengo egunean jausi eta frenoa hautsi nuen; hortaz, freno bakarrarekin ibili naiz gainontzeko egunetan.

Bergarako txirrindulari elkarreko presidente zara. Zer egingitzen duzue?

Orain dela gutxi zikloturista martxa bat antolatu dugu. Bestalde, domekero egiten ditugu irteerak; aurten, gainera, neskendako ere antolatu dugu, baina ez du arrakastarik izan. Urri ingururako beste lasterketa bat antolatuko dugu.



Garikoitz Arregi bizikletarekin entrenamendua egin ostean.

ARANTZAZU EZKIBEL

KIROLA > AUKERA EGITEA

Umeendako taldeko kirolak hautatzea gomendatu dute

Etorkizunak bakarkako kirol jarduerak egitera eramango gaituelako, Borja Moiuak eta Josu Murgiondok taldeko kirolak aukeratzeko aholkatzen dute

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE
Multikirola egiten dute ume gehienek haurtzaroko lehenengo urteetan. Aukeraketa egiteko unea iristen denean, ordea, zalantz handiak pizten dira umeen eta gurasoen artean. Futbola, pilota, igeriketa, txirrindularitza... aukera zabala da. Esperientziatik, Borja Moiuak eta Josu Murgiondok lehenengo eta behin gauza bat argitzeko gomendioa egiten dute: bakarkako kirola ala taldeko kirola?

GAZTEENDAKO, TALDEKO KIROLA
Moiuak eta Murgiondok taldeko kirola gomendatzen dute, ezbairik gabe. Uste dute egungo ere-



Neska taldea areto futbola praktikatzen.

ARTXIBOA

duek indibidualismoa dutela oinarri eta diote bakarkako kirolak egiteko aukera etorriko dela etorkizunean ere.

Biek ala biek dituzte alde onak eta alde txarrak. "Bakarkako jarduerak onak dira pertsona helduak eta zailduak heztek. Autonomoagoak eta konpetitiboagoak izango dira. Ez dago tal-

de estrategiarik eta entrenamenduak gogorrak izango dira, monotonoa", adierazi dute.

Umeendako taldeko kirolen aldeko apustua egiten dute: ludomotrizitateak, hau da, jolasak, garrantzia du, garaien baten poza bikoiztu egiten da, eta porrota, aldi, erdian geratzen da", adierazi dute.

HEZIKETA > AISIALDIA

Zelan aukeratu eskolaz kanpoko jarduerak

L.Z. > ARRASATE
Hezkuntza musikalak, kirolaren praktika, hizkuntzen praktika... aukeran ditugun eskolaz kanpoko jarduerak asko dira gaur egun



Arrasate Musikaleko ballet ikasle bat.

Psikologia Unibertsitate Zentroko Ainhoa Manzano eta Juan Luis Martin doktoreek.

Etxadi taldearen webgunean irakurri diegu ikerketa gehienek diotela eskolaz kanpoko jarduerak umeei jarraikortasuna, ardura eta independentzia gartzen laguntzen dietela. "Beste era bateko harremanak izaten laguntzen die, autoestimua indartzen dute, eta garapen sozialerako aukerak eskaintzen dituzte", adierazten dute.

KONTZUZ PRESIOAREKIN
Seme-alaben agenda egiterakoan aditurek aholkatzen dute umeek eskolan egindako jardueraren baten inguruan interesa azaltzen badute, orduan euren adinera egokitutako programa bat bilatzeko interes hori garatzeko.

Kontziente izan behar dugu, ordea, ez ditugula umeak gehiegi presionatzen behar eskolaz kanpoko jardueretik. Guraso askoren kezka izaten da hori. Umearen adinera egokitutako jarduerak aukeratzeko gomendatzen digute, eta umearen interesak kontuan hartzen dituztenak.



Iñaki Olalde, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko transmisió eragilea. GOIENA

Iñaki Olalde > Bertsozale Elkarteko kidea

"Umeek irudimena, hiztegia eta ahozkotasuna lantzen dituzte bertsoekin"

L.Z. > ARRASATE
Zortzi urte dira Bertsozale Elkarteko Gipuzkoan *Ahozkotasuna eta bertsolaritzazieneko proiektua* abiarazi zuela. Ikastetxean, hezkuntza arautuaren barruan, egiten dute eta 9.000 umek hartzen dute parte.

Zein da zehatz ikastetxeenik egiten duzun lana?

Informazioa bidaltzen dugu ikastetxeetara edo eurak ipintzen dira gurekin harremantzan. Hamabost egunean behin joaten gara ikastetxera eta berrian ordubeteko saioa egiten dugu. Joatea tokatzen ez zaigun astean ikastetxeko irakasleenkin lantzen dute bertsolaritzazia eskolako umeek. Ikastaro osorako egitasmoa da, eskola orduen barruan egiten dena eta astean ordubeteko dedikazioa eskatzen duena. Ikastetxearen, Udalaren eta Bertsozale Elkartearren arteko elkarlana da.

Zein helbururekin abiarazi zenuten egitasmoa?

Bertso eskoletarako zubi lanak egiteko sortu genuen. Duela zortzi urte etena egon zen; ume gutxiago etortzen ziren bertso eskolara eta desagertzen hasi zen.

Orain, baina, osasuntsu dau de bertso eskolak, ezta?

Bai. Gipuzkoan bakarrik bertso eskolen bueltan dabiltzan 9.000 lagun ditugu zenbatuta. Erdia baino gehiago umeak eta gaztetxoak dira.

Ze onura ekartzen dizkio eskolako ume batz bertsolari eta lantzeak?

Jasotzen ditugun balorazioak oso onak dira. Bertsolaritzazia lantzerakoan beste gauza batzuk ere lantzen dira: ideiak, irudimena, hiztegia, ahozkotasuna... horiek guztiak lantzen dira. Ideiak esaldi bihurtu behar dira, esaldiak ordenatu egin behar dira. Jendaurrekoak ere lantzen da. Umeendako, orokorrean, oso aberasgarria da.

"Astean ordubeteko dedikazioa eskatzen du; gu hamabostean behin etortzen gara"

"Ideiak, irudimena, hiztegia, ahozkotasuna eta jendaurrekoak lantzen dira"

> HEZKUNTZA

Datorren ikasturterako martxan nahi dute eredu hirueleduna EAEko 40 ikastetxetan

Datorren ikasturteari begira eredu hirueleduna modu eksperimentalean frogatu nahi duten ikastetxeek ekainaren 10era arte epea izango dute haien eskaerak aurkezteko.

Eusko Jaurlaritzak 445.000 euro inbertituko ditu horrenbesteko zeresana eman duen eredu berria martxan ipintzeko. Jaurlaritzak iragarri du irakasle hirueledunak eta egonkorak dituzten ikastetxei lehentasuna emango diela.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
zatoz gure webgunera



guraso.com



> **PUNK JAIALDIA**
Oñatiko Errekalde auzoko jaietan, bost taldek jo zuten egubakoitzean > **30**



> **EMON**
Bergarako taldeak jaietan aurkeztu zuen bere lan berria, txosnagunean > **31**



> **BERGARA HIRIA**
Lehiaketara aurkeztutako 40 lan onenak Aroztegi aretoan daude ikusgai > **32**

36KO GERRA > DOKUMENTALA

Aretxabaletako memoria historikoa berreskuratz

ESPAINIAGO GERRA Memoria historikoa azaleratzeko, 36 eta 37ko gerran Aretxabaletan gertatutakoa jasoko du dokumental batek

GRABAKETAK Arrasaten bi pasarte filmatu dituzte; Intxortako trintxeretan eszena bat grabatzea ere gura dute

MAIDER ARREGI > ARETXABAleta
Guardia Zibilak eta militarrek Arrasateko Herriko Plaza eta Iturriozt kalea hartu zituzten. Sekulako ikusmin sortu zen herrian: dozenaka bizilagunek *Gerra zibila Aretxabaletan* dokumentala nola filmatzen zen ikusteko aukeera izan zuten pasa den domekan. "Isilik, kamera, ekin!" zuzendarriaren agindupean, Espainiako gerrako bi eszena grabatu zituen 20 laguneko lan taldeak. "Aretxabaletan 1936 eta 37an zer gertatu zen kontatzea du helburu dokumentalak", azaldu digu Juan Ramon Garai, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak. Arteman Komunikazio enpresa eta Intxorta taldearen arteko elkarlana da. Gorka Etxabe, Artemaneko arduradunaren hitzetan, "asmoa da dauzkagun fikzio grabaketa historikoekin eta garai hartako lekuoen elkarrizketekin doku-

mentala osatzea. Argazkiak eta elementu grafikoak ere erabili ko ditugu".

FRANKISTAK ARETXABALETAN
Gerra eta errepresioaren ondorioz, Aretxabaletan urtetan gordea egon den historia azaleratu nahi dute. "Artemanekoekin bat egin eta letretatik irudira pasa gara. Benetan gertatutako historiaren bi pasarte grabatu ditugu. 1936an, urria eta azaroan, faxistek Aretxabaletan sartu eta pertsona zibilak atxilotu zituzten. Tartean, Bedoñako Elorrixa baserriko Dionisio Uribesalgo baserritarra. Orduan, Bedoña Aretxabaleta zen eta pentsu genuen gertaera hori jasotzea dokumentalean. Arrasateko udaletxean zeuden ziegetara eraman zituzten atxilotuak, hori ere irudikatu dugu", azaldu digu Garaik.

Grabaketetako bat Bidasoro baserrian egin dute. Izan ere, Elorrixa baseria guztiz berrituta dago egun; aldiz, Bidasorok orain dela 100 urte zeukan itxura berbera dauka. "Ama haurdun zegoela eta bederatzi seme-alaben aurrean atxilotu zuten aita". Oso ondo gogoratzen du Jose Luis Uribesalgok 1936an gertatu zena baserrian: "Lau urte t'erdi nituen baina guztia gogoratzen dut. Amak askotan kontatzen zidan eta, 18 urterekin, gertatutako guztia oroitu nuen bat-batean". Oso gogorra izan zela azaldu digu:

"Kartzelan beldur handia pasa zuen aitak eta konfesatzen ere ez zioten utzi. Sorpresaz azaldu ziren frankistak eta aita eraman zuten ondoren fusilatzeko". Kandida, Dionisio Uribesalgoren alaba, astoa hartu eta esnea saltzea Arrasatera jaisten zen. Herrian zegoela, bere aita preso, lotuta



Arrasateko filmaketan parte hartu zuten gazte batzuk, gustura. Jantziak eta materiala, Madrilen alokatutakoak dira. ARTEMAN



1939ko Ford kamioi gainean, Osoron Uribesalgoren paperean. Autoa Maritxutako Komisiñuak erabiltzen duena da. ARTEMAN

ikusi zuen. Eszena hori ere jasotzen du dokumentalak. Lucio Oteizaren adierazpenak oso hunkigariak dira. Oraindik ere malakoak ateratzen zaizkio hildako laguna gogoratzen duenean. Intxorta inguruan, bala galdu batek bete betean eman zion lagunari, eta Lucioaren besoetan hilida erori zen.

GRABAKETAK IBARREAN
Mikel Arregi Arrasateko gaztetxeko kidearendako sekulako esperientzia izan da: "Gaztetxeko 17 lagun batu ginen. Jolas baten moduan hartu genuen eta primearan pasa genuen". Arregik fran-

kisten jeneral nagusiaren pape-ra egin du. "Sekula ez nuen pentsatuko nire burua horrelako jantzi baten barruan ikusiko nuenik; bitxia izan da *rol* hori betetzea, esperientzia polita benetan". 4 eta 13 urte bitarteko bederatzi gaztetxo arrasatearrek ere hartu dute parte. Jantziak eta gerra materiala Madrilen alokatuta ekarri dituzte. Elgetan zabaldu den erakusketan dauden fusilak eta pistolak ere erabili dituzte. Gainera, Intxortan egin berri dituzten trintxerak aprobetxatuz, Murun gertatutako pasartea ere filmatuko dutela azaldu digu Etxabek.

Dionisio Uribesalgoren pape-ra, Osoron, Jon Zubiaga arrasatearrak egin du. "Erronka bat izan da; lehen aldia da horrelako paper gordina egiten dudana. Hurbileko historia da eta generazio berriei jakinarazteko proiektu polita. Oraindik erantzukizunak airean daude gainera. Joxe Uribesalgoren begiradapean, errespetu handiz sartu naiz Dionisioren paperean".

Dokumentala urri aldera aurkeztuko dute eta DVD formatuan ere zenbait kopia kaleratuko dituzte. Egindako lana aprobetxatuta, liburu bat ere kaleratuko dute Aretxabaletan.

ESANAK

"Ama haurdun zegoela eta bederatzi seme-alaben aurrean, aita indarrez eraman zuten frankistek"

Joxe Uribesalgo > Lekukoa

"Hurbileko historia da eta generazio berriei jakinarazteko, azaleratzeko, proiektu polita da"

Jon Zubiaga > Aktorea

KRONIKA > PUNK FESTIBALA ERREKALDEN

Gandor festa bost orduko punk jaialdian

NON: Oñatiako Errekalde auzoa.
EGUNA: Egubakoitz, maiatzak 21.
ZENBAT JENDE: Plaza beteta.
IRAUPENA: Bost ordu.

LANDER MUÑAGORRI > OÑATI
 Errekaldeko jaietako lehen egunerako kontzertuen kartela potentzia zen. Bost talde, eta beste hainbeste orduko festibalean, gandor eta kaskamotzak nagusitu ziren Errekaldeko enparantzan.

Kontzertuei hasiera emateko lanetan aritu zen Bitz punk rock talde oñatiarra. Emanaldi luzea ez izan arren, erantzun ona izan zuen jendearen aldetik.

Gaueko hamarrak pasatu berritan hasi ziren Golpe de Estado taldekoak euren emankizuna eskaintzen. Oñatiarren erritmo biziak zorrotz iritsi ziren entzuleen belarrietara, argi erakutsiz azken denboraldian teknikoki

aurrerapauso handia eman dute. Sospechosos taldeko Naiara ere irten zen talde arrasatearrekin kantatzen.

Kañeria 13 arrasatearrek haritu zuten Golpe de Estadoaren testigua. Giro ezinhobia sortu zuten ikusleen artean, *feedback* handia lortuz. Punk eta hardcore doinuak kantatuz aritu ziren berratuz zirenak. Beste behin ere, Ulli abeslariak bereak eta bi egin zituen taula gainean. Bengalak piztu eta gaueko giroa berotzeko ardura berak hartu zuen.

70eko hamarkadako The Lurkers taldea izan zen taularatzentz hurrena, bere garaien Ramones brintainiarra bezala ezaguna egin zena. Emankizuna gaueko eskasena izan zen, entzuleekin hartu eman gutxien izan zuena. Eurek ere ez zuten kontzertua behar bezala bizi izan, eta hori gertatzen denean, ikusleengana iristea zaila izaten da.



Egoitz eta Ulli, Kañeria 13-ko taldekideak, egubakoitzean eskaini zuten kontzertuan.

JOSETXO ARANTZABAL

Gaueko azken emankizuna izan zen 999 talde mitikoarena. Hasiera partean, kantu berrienekin eta evezagunekin hasi ziren, eta publikoa hotz agertu zen. Oste-

ra hasi ziren euren betiko doinuak eskaintzen eta ikusleen arreta berraganatzen. Hainbat izan ziren taula gainera igo eta abeslariarekin batera kantuan aritu zirenak.

Aipatzeko Nick Cash taldeko abeslariaren dinamika taula gainean. 70eko hamarkadatik hona urte ugari igaro badira ere, modu horretan mugitzea ez da gutxi!

KRONIKA > LEGEN BELTZA BERGARA ETA ARRASATEN

Domekako lepoko minak axola al du, bada?

NON: Bergarako gaztetxea eta Arrasateko 3 areto.
EGUNA: Egubakoitz, maiatzak 21; eta zapatau, maiatzak 22.
ZENBAT JENDE: 70 lagun inguru kontzertu bakoitzean.
IRAUPENA: Ordu eta erdi inguru.

L.M. > BERGARA
 Legen Beltza taldeko kideren bat edo beste lepoko minez esnatuko zen atzo ziurrenik. Izan ere, asteburu intentsoa eduki dute igaro berri dena, egubakoitz eta zapatauan kontzertu bana eskaini baitzuten. Bergarako gaztetxean izan ziren lehenbiziko, euren zuzeneko bortitzarekin; eta Arrasateko 3 aretoan, hurrengo egunean.

Kontzertu gordina izan ziren astepiarrek asteburuko bi egunetan eskaini zituztenak. Trash metal eta death metalaren arteko doinuetan sakondu zuten hamairu kantutan zehar. Laister barru lan berria izango dute Legen Beltzako mutilek esku artean, baina horrek ez zien eragotzi aurrerapen kantu batzuk ikuslei eskaintza.

Jo zituzten abesti berrietan betiko eran jarraitzen baldin badute ere, death metalak gaur egungoetan presentzia nabar-



Legen Beltzak Bergaran eta Arrasaten jo zuen. Argazkian, Bergarako kontzertua.

JOSETXO ARANTZABAL

mendagoa dauka. Legen Beltzaren kantutegi berri honek erantzun aparta izan zuen Bergaran eta Arrasaten bildu ziren ikus-

enzuleen artean, kontzertuak berak bezalaxe.

Nabaria da eman duten aurrerapausoa: apaingarriak alde bate-

ra utzi eta soinu bortitzagoa lortu dute. Eta hori guztia bost kantu berri soilik jo zituztela kontuan hartuta.

Hauen ondoren, The Descendek jo zuen, Darkness by Oathen bezalaxe death metal nordikoa jorratzen duen taldea.

LEGEN BELTZAZ GAIN, GEHIAGO

Sua, argia eta death metal nordikoa

Asteburuan zehar, ordea, ez zen Legen Beltza azpeitarria bakarrik aritu, kontzertu bakoitzeko bi taldek lagundu baitzien, Bergaran zein Arrasaten.

Egubakoitzeko saioan Dark Code bergararra aritu zen, hasteko eta behin, ikusleen belarriak berotzen. Kontzertu aparta eskaini zuen eta, talde gaztea izan arren, etorkizunean zer eskaini izango dutela garbi dago.

Childrain eta euren ikuskizunak jarraitu zien ondoren. Egiten duten musika baino ikuskizunak dauka hemen garrantzia handigoa. Suak eta argiteriak egiten duten musikari esparrua jaten die.

Zapatuan Darkness by Oath arrasatearra aritu zen Legen Beltzaren aurretik. Azpimarratzekoa da hauen jarduna, Euskal Herrian apena jorratzen den death metal nordikoa jotzen baitute. Estilo honetan, doinu gogorrak melodikoarekin partekatzen dituzte.

Hauen ondoren, The Descendek jo zuen, Darkness by Oathen bezalaxe death metal nordikoa jorratzen duen taldea.

EMANALDIA > HELDUENTZAKO SAIOA

Paula Carbonell ipuin kontalaria Pol-Polen

Helduei zuzendutako '¿Mal o bien de amores?' kontakizuna eskainiko du datorren egunean. Ekitaldia Oihulari Klownek antolatu du.

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA

Paula Carbonell Cuencako ipuin kontalaria Bergarako Pol-pol tabernan izango da datorren egunean. Oihulari Klownek antzerki taldeak antolatu du ekitaldia. Urtero bezala, Euskal Herriko txoko ezberdinietan ahozko narrazio zirkuitua antolatu eta bultzatzen dihardu, eta 2009-2010 kursoari jarraipena emanetegongo da Carbonell Bergaran. Maiatzaren 27ko saioan helduentzako kontakizuna egingo du, *'¿Mal o bien de amores?'* ipuinarekin.

Carbonellek hainbat alor jorratuko ditu bere emanaldia: amodia, fidelitasun gabezia, maiatzeko era ezberdinak edota maiatasunaren bidez sentitu daitekeen guztia.

IPUINAK, DENENTZAT EZBERDIN

Carbonell urte luzez dabil adin talde ezberdinenzat ipuin kontalari bezala, irakasle bezala lan egiteaz gain.

Berak dioen bezala, ipuiniek ez die pertsona guztiei era berean eragiten. Zentzu horretan, kontakizunak arroparekin alderatzen ditu: "Pertsona bati oso ondo gera dakiode jantzi bat; aldiz, besteren bati, oso gaizki". Eta ipuin batekiko inork emozioa sentitzen baldin badu, orduan ipuin hori ezin hobeto doakio. Baieztago honi garrantzi handia ematen dio Cuencako ipuin kontalariak, "emozionatzen ez nauen ipuin bat ez baitut sekula kontatuko". Datorren egunean emozioz jardungo da, beraz.



Paula Carbonellek urte asko daramatza ipuin kontalari gisa.

GOIENKARIA

KRONIKA > EMON TALDEA BERGARAN

Emon, dantza eta jaia taula gainean

NON: Bergarako txoznetan.

EGUNA: Egubakoitzta, maiatzak 21.

ZENBAT JENDE: Txosnagunea beteta.

IRAUPENA: Ordu eta laurden inguru.

L.M. > BERGARA

Gaztetasuna da Bergarako Emon taldearen bereizgarrietako bat, eta gazteriak ongi erantzun zien pasa den egubakoitzean. Euren herrian zeukaten zuzeneko emanaldia, disco aurkezpen birako bigarren kontzertua -Tolosako Bonberenean emandakoaren ondoren-. Taldekieentzat berezia izan zen inondik ere egubakoitzeko saioa. Horrek urduritasuna zekarren berarekin, eta uneren baten hori sumatu bazeen ere, berehalako joan ziren nerbio guztiek eta, azkenerako, zeukaten guztia eman zuten.

Ikus-entzuleek txosnetako karpa bete zuten, Emon taldearen doinuekin gozatu ederra harutz. Lehen lerroetan dantza eta mugimendua etengabea izan zen. Emanaldia puntu gorena, halere, amaieran izan zen: iragan urtean txosna batzordearentzako kaleratu zuten kantua jo zuten, ikusleen gozamenerako. Kontzertuan zehar, birritan eskaini zuten kantua, birritan ikuslegoa danzaraziz.



Haritz, Oihane eta Joanes egubakoitzeko kontzertuko momentu batean.

JOSETXO ARANTZABAL

Trikitia, folka, reggaea, ska, funky edo rock doinuak nagusi dira talde bergararrean. Zortzi pertsonak osatzen duten taldea da, eta horrek zuzenean eragiten du estilo nahasketa horretan.

Musika estilo ezberdinak jorratzeaz gain, kantuen gaiak ere

orotarikoak dira. Hala, *Piztu Herria* kantuarekin, egungo egoera honetan aurrera egiteko arrazoik eman zituzten; larunbat gaueko istorioak, *Aurrera* piezarekin; *5. eremutik* abestian, Guantanamoko egoera salatu zuten; eta egurra banatu *Lerro zuzena*, *Iza-*

teko eta *Izan zu-n*. Disko aurkezpena izaki, lan berriko kantutegi guztia eskaini zuten, hainbat bertsioz gain.

Adi beraz lagunok, Emon taldearen zuzeneko izerditsu eta dantzagariak udan herriz herri egongo baitira!

XII ANTIGUA LEHIAKETA

Ganbara Txiki bigarren sailkatu da

Lau abesbatzak hartu zuten parte, eta Bartzelonako Vivaldi gailendu zen

L.M. > OÑATI

Ganbara Txikik zapatuak abesbatzen lehiaketa batean bigarrenez hartu zuen parte. Zumarragan izan zen, Antiguako lehiaketan, eta bigarren sailkatua izan zen, Bartzelonako Vivaldi abesbatzaren ondoren.

Aitor Biainek zuzentzen duen koruaren emanaldia lau kantuz osatu zen: *Laudate Dominum* (Javier Bust), *Angelus* (Josu Elberdin), *Uraren besotik* (Eva Ugalde), eta *Habaneras de Carnaval* (David Azurza). Azken pieza honekin, Torreviejako Habanera Txapelketa irabazi zuen Oñatiko abesbatzak; zapatuak, bigarren saria eman zion.

> EUSKOVISION

Eurovision jaialdia lagunartearen ikusteko deialdia, zapatuak

Datorren zapatuak, Eurovision lehiaketa izango da, Oslo. Baina Elgeta ere bertan presente egongo da, Españoia Kafe Antzokian antolatu duten Euskovision hitzorduarekin. Jende artean, lehiaketaren inguruko komentarioekin ongi pasatzea dute helburu. Pasa den urtean ere antzeko esperientzia bat egin zuten, baina kasu horretan Internet bidez soilik. Ekitaldiaren antolatzaileak *sustatu.com* eta *lapersonnalite.com* webguneak dira.

> HITZALDIA

Udako solstizioaren inguruko hitzaldia Bergaran

Hitzaldia eskainiko du Bergarako kultur etxearen Aritz Bergara idazle eta kultura sustatzaleak. Udako solstizioa aitzakiatzat hartuz, orain dela urte gutxira arte indarrean zeuden sinismen berri emango du, gaur egungo gazzteek horien inguruan ezer gutxi baitakite. Udako solstizioa abiapuntu, hitzaldiaren helburua horren inguruko ezagutza zabaltzea eta esanahi ezagutaraztea da. Hitzaldia datorren ekainaren 22an izango da.

ARGAZKIGINTZA > BERGARA HIRIA

250 lagun pasa dira Aroztegitik asteburuan, argazkiak ikustera

Bergara Hiria argazki lehiaketako parte-hartzeak eta lanen kalitateak gora egin du eta emaitza borobila da bisitari kopuruari dagokionez ere

GOIATZ ARANA > BERGARA

Aurreko urteetan ez bezala, oraingoan, Pazkoekin batera egotitu da Bergara Hiria argazki lehiaketako lanen erakusketa Aroztegin, eta jendeari gustatu egin zaio. Hala kontatua digu Udalari lehiaketa antolatzeko lagundu dion Pol-Pol argazki taldeko Joseba Leturiak: "Inoiz baino lan gehiago aurkeztu dituzte aurten lehiaketara eta kalitatea izugarria da. Egubakoitzetik domekara bitartean Aroztegi aretotik pasa direnek txalotu egin dute erakusketa; oso polita geratu da".

SARI BANAKETA

Bariku arratsaldean egin zuten sari banaketa ekitaldia, Aroztegi aretoan, Agurne Barruso alka-



Bariku arratsaldean banatu zituzten sariak.

JOSETXO ARANTZABAL

tea eta Enara Minguez Kultura zinegotzia bertan zirela. Elorrioko, Eibarko Club Deportivo eta Ortzadar argazkilari elkarteko kide banak osatu dute aurten epaimahaia. Sei lan aukeratu dituzte: koloretan hiru eta zuri-beltzean beste hainbeste. Irungo Andres Indurainen *Parada y silencio* lanak eta Felix Idigoras berigarrazen *La Calle* obrak eskuratu dituzte lehen

sariak, zuri-beltzean eta koloretan, hurrenez hurren. Herriko sariak, bestalde, Jose Agustin Gurrutxagaren *Pasiego-zuri-beltzean*- eta Joseba Leturiaren *Rajastan*-koloretan- obrek era-mann dituzte.

Bariku arratsaldean sariak banatuta, irekita dago Bergara Hiria lehiaketako 40 onenen mostra. Datorren domekara arte egongo da zabalik.



40 bat eskultura daude ikusgai, Oñati kultura etxearen.

JOSETXO ARANTZABAL

ESKULTURA > 'ITZARRI'ERAKUSKETA

Esteban Kerexetaren eskulturak ikusgai

Oñatiarrak material ezberdinez egindako 40 bat lanek osatzen dute kultura etxeko erakusketa

G.A. > OÑATI

Zabalik dago Esteban Kerexeta oñatiarraren erakusketa; egubakoitz arratsaldean ireki zituen ateak, kultura etxearen. Material ezberdinez egindako eskulturak dira -40 inguru gehienak espresuki. Oñati kultura etxeko erakusketa honetarako egin-dakoak, gainera. Asteburuan kultura etxetik pasatako herri-tarrek ezagutu dituzte jada Kerexetaren lanak, eta hala

egin ez dutenek ekainaren 6ra arte izango dute horretarako aukera, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

ESKULTURGINTZARAKO JAUZIA
Ibilbide luzea egin du Kerexetaren erakusketa; argazki-gintzatik egin zuen eskulturgintzarako jauzia, bolumenaren bila. Material ezberdinak landu eta askotariko gaiak jorratzen ditu.

KIROLA > OSAGARRIAK

Pultsometroa erabiltzen

DABID BEREZIBAR

Aspaldi egiten genituen entrenamendu saio haiek atzean geratzen ari dira; hots, sentsazioen bidez korrika egitea, zein erritmo edo intentsitatean ari garen jakin gabe eta adierazle bakarra izerdia eta arnas estua zirela. Hori egiten genuen, gainera, pentsatuz esku-muturreko erloju-aparailuak profesionalentzako baino ez zirela. Gaur egun, jende askok eta askok erabiltzen du pultsometroa, eta esango nuke oraindik ere gehiago erabili beharko litzatekeela.

ZERGATIK ERABILI

Oro har, pultsometroak balio du jarduera fisikoa objektibotasunez, era kontrolatuagoan eta osasun-tsugao burutzeko. Baino beste hainbat gauzatarako ere bai.

- Ariketaren intentsitatearen kontrola ematen digu: bihotz maiztasuna, denbora, abiadura...

- Entrenamendu espezifikoak burutu eta eremu konkretuetan mugitzeko adierazleak ere.

- Momentu askotan gure mugak gainditzen ari garela abisatzan digu.

- Entrenamendu osasuntsua egiteko baliogarria da.

- Norbere buruarekin lehiatzeko era bat ere bada.

Pultsometroa erabiltzen hasi aurretik norbere gorputzaren gaitasun eta mugak ezagutzea komeni da: bihotzaren gaitasun gorena, eraman beharreko erritmoak, intentsitate eremuak, nola entrenatu.... Hori guztia mediku azterketa pasatuta lor dezakegu.

DATU BATZUK

Pultsometroak, orokorrean, oinarrizko datu batzuk emango dizkigu:

Gorputzaren mugak ezagutzea komeni da pultsometroa erabili aurretik

- Jardueran zehar momentuko bihotz taupada kopurua.

- Ariketa guztian zehar eman-dako bihotz maiatasun balio goren eta batez bestekoak.

- Ekintzak iraun duen denbora guztian, bost segundoro, gure bihotza zein taupadatan egon den.

- Zenbat kaloria erre ditugun; pisua galdu nahi bada, balio interesarria.

- Datuak ordenagailuan gordetzea aukera izanez gero (programa eta interfazea behar dira), entrenamenduen denboraldiak, kontrola, kurbak... lortuko ditugu.

MARKAK ETA PREZIOAK

Merkatua zabala da kasu honean ere. Marka asko daude (Polar, Garmin, Suunto, Cardiosport, Nike...) eta prezio anitz (30 eurotik hasita 500 eurora artekoak). Eman nahi diogun erabileraaren arabera (korrika, bizikleta, igeriketa, mendia) eta behar ditugun funtzioei begira aukeratu behar ko genuke pultsometroa.



Polar RS 800 pultsometroa: erloju, banda eta GPSarekin.

ARIZMENDI

ENTRENAMENDU EREMUAK

- % 50 - 60 artean: errekkuperazio erritmoa.

- % 60 - 70 artean: gantzkerretzeko intentsitatea.

- % 70 - 80 artean: oinarrizko erresistentziaren hobekuntza.

- % 80 - 90 artean: atalase anaerobikoaren entrenamendua; mistoa.

- % 90 tik gora: entrenamendu anaerobikoa.

Karvonen-en formula: eremu bakoitzari dagokion norberaren bihotz maiztasuna (Bm) ematen du. Horrela ateratzen da:

$$(Bm \text{ gorea} - Bm \text{ basala}) \times 0,6 \text{ edo } 0,7 \text{ edo } 0,8 \dots + Bm \text{ basala}$$

30 urteko pertsona batek atsedenean 60 taupada izanik, % 70-80ko eremuan entrenatu nahi badu, zein intentsitatetan jardun beharko lukeen kalkulatzeko:

$$(220-30) - 60 = 151$$

taupada minutuko (%70)

$$(220-30) \times 0,8 + 60 = 164$$

taupada minutuko (%80)
Emaitsa izango litzateke 151 eta 164 taupada arteko intentsitatean entrenatu dezakeela.

Atal honetan...

Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola 2.0 PROFESIONALAK
ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

GURE TALDEAK

Xasta



Ezkerretik eskuinera, Natxo, Maik, Luzu eta Pena.

XASTA

"Musika 'kañeroaren' hutsunea dutenengana heldu gura dugu"

Xasta taldeak izen bereko diskoa kaleratuko du ekainaren 4an; Koldo Sagastumerekin grabatu eta masterizazioa Coruña egin dute

Taldea sortu zutenean, 2002an, bertsioak egiten hasi ziren, baina disco berrian eurek konposatutako hamar kantu grabatu dituzte

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Xasta taldeak izen bereko diskoa kaleratuko du ekainaren 4an. *Maiek, Pena-k, Luzu-k eta Natxok osatzen dute taldea eta eurekin egin dugu berba lan berriaren aurrerapena egin diezaguten. Metal-rocka da lanaren oinarria.*

Disko berria grabatu duzue. Nolakoa da?
Ederra! Diskoa hamar abestik osatzen dute eta *Xasta* izena dauka. Taldearen izena jarri dugu, disco hau konposatzen duten hamar abestiek benetan erakus-ten dutelako zer den Xasta eta zer musika egiten dugun. Eta, discoaren lehenengo abestian azal-ten dugun moduan, *erritmo biziz eta garrasi sakonez* betetako dis-koia da.

Metal-rocka lantzen duzuela esan dezakegu?

Saiatzen gara musika *kañeroa* egiten, erritmo sakon eta biziekin eta ahots gogorrarekin. Ez dakigu gure doinua metal-rockaren barruan sar dezakegun, baina garbi dugu *egurra* ematen ahalegintzen garela.

Askotariko gaiak daude hamar abestietan. Bakoitza kistro bat dauka, baina onena diskoa entzutea da.

Nortzuengana heldu gura duzue zuen musikarekin?

Musika *kañeroa* falta duten guztienaga. Badirudi azken boladan metal musika ez dagoela inon entzungarri. Gure ustez, jende askok honen beharra du eta haiengana heldu nahi dugu.

Gazteagoak ginenean metal musika pil-pilean zegoen eta horren influentziarekin jaio genen. Gaur egungo egoera guztiz ezberdina da, oso zaila da metala, heavya edo hardcorea egiten duten talde berrieik aurre-ra egitea.

Non grabatu duzue diskoa?

Diskoa gure lokalean grabatu genuen. Krisiaren eraginez, guk geuk grabatzea erabaki genuen. Vice-presidentes taldekoek alboko lokalean entse-atten dute, eta grabazioetarako utzi ziguten. Horrela eraiki genuen gure estudio txikia.

Koldo Sagastume ibili da teknikari. Bueno, teknikari, aholkulari, diseinatzaile... Azkenik, masterizazioa Metromastering estu-dioetan egin dugu, Coruña.

Diskoa ekainaren 4an kalera-tuko dugu eta salmenta puntuak www.myspace.com/xastametal webgunean ipiniko ditugu.

Noiz aurkeztuko duzue diskoa Debagoienean?

Ba, oraindik ez dakigu. Kon-tzertuak lotzea oso zaila da, baina ahalik eta azkarren aurkeztuko dugu discoa Debagoienean. Oraingo, badakigu ekainaren



Metalaren mila kolore jasotzea ez da erraza

Xasta taldea Gasteizko da, baina taldekideetako batzuek Arrasaten dute oinarrrietako bat; eta esango nuke hori agerian gelditzen dela kasualitatea izan edo ez. Hain zuzen ere, metal rape-atau egiten duten arren, tarteka Brutal Melodyren indarra edo Angerren ukitua gogora ekarri dizkidate; eta baita, Rage Against The Machine ere, jakina.

Indartsua, bortitzta eta irmoa da euren eskaintza, baina, horrez gain, ukitu bereziak ematen dizkiete kantuei. Metalaren dako beste leihotxo bat!

Iker Barandiaran

4an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan zuzeneko egingo dugula, Governors taldearekin. Lerroak aprobetxatuko ditugu edozein lekutan zuzenekoak egiteko prest gaudela esateko... Gure diskoa erakutsi gura dugu Euskal Herriko bazter guztieta.

Nolakoak dira zuen zuzenekoak?

Guretzako eztanda bat bezala da, momenturik gozagarriena. Oso garrantzitsu ikusten dugu grabatutakoagertokian ganoraz defendatzea. Hori horrela, zuzeneko bakoitzean %100 ematen dugu. Kontzertuetako helburua ondo pasatzea da.

Noiz sortu zen taldea eta zer-gatik?

Taldea 2002ko udan sortu genuen. Hasieran, denbora-pasa moduan hasi ziren. Pentsatzen dugu beste talde guztien antzera hasiko ginela: lokalean entse-atten, bertsioak jotzen eta ondo pasatzen. Ondoren, kide berriak heldu ziren eta beste batzuek alde egin zuten, oraingo laukotea osatu arte. Orduan, bertsio-ek abesti berriei lekua utzi zieten. Dena den, bertsioak beti ditugu labean, gertu.

iragarkilaburak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua. 2004ko uztalean eraikia. Bi logela, egongela, komun bat eta sukaldea jantzia. Balkoa. Garajea aukera. Galdetu Loreagatik. 659 66 25

Antzuola. Beheko auzoan etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Oso eguzkitsua. 654 98 69 02

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

Arrasate. 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzia. Bi logela (hiru egingo aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berriztuta. Berehala bitzitzeko aukerarekin. Prezio oso interesgarria. 673 32 78 91

Arrasate. Etxebizitza salgai Udalaitz dorrean. Azalera erabilgarrria 94 metro koadro gehi 11 metro balkoi. Hiru logela, bainugela bat, komuna, sukaldea berriztutak, egongela eta trasteleku ederra sukalde ondoa. Biigogailu. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera begira. Gara-je itxia aukera. 634 44 96 42

Berri. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukaldea berriztua, 2 balkoi, garbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobeant. 647 77 73 92

Durango. Apartamentu batera joateagatik zintzten da. Ekieldeko eta mendebaldeko orientazioa duen etxebizitza, argitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komunalehondak, 2 terraza partikular 12 m2 eta 8 m2-koak eta terraza komunitarioa. Egurrezko altzari esku-siboko jantzia, alfonbrak, kordinak, lanparak, 2 urte dituzten elektrogailuak, berogailuaren kalderak jarri berria, 4 armairu enpotratur, aluminiozko leihosak, ateak eta lurrak aldauta.

Garajea eta igerilekuarekin. 655 70 46 84

Elorrio. Elorrioz pisu bat saldu edo errentan ematen da. 3 logela, jangela, sukaldea bi bainugela eta garbara. Altzariz jantzia, biziñen sartzea dena prest. Telefonoa: 657 70 03 21 edo 94 658 32 05

Etxarri Aranatz. 90 metro koadroko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1.esk. Erabat jantzia: 3 argi, aluminioko leho biakoitzak, behoko sua, berokuntza elektrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gauztak 30 euro urtean. 3logela, sukaldea, egongela jangela, komuna, despendentsa eta 20 metro koadroko trasteleku eta txabeen. Prezioa astostek. 636 15 85 35 (Bitorri)

Etxarri Aranatz. Familabakarra salgai Etxarri Aranatz. Praktikan berria eta jantziakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela, bajarra eta lorategia. Bista ederrak. Prezioa astostek. Deitu 637 53 86 15 telefonora.

Gasteiz. Gorbeia kalean etxebizitza salgai. Guztiz berriztua. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera oean eta jantzia. Trasteleku eta patioa ere baditu. 665 71 77 96

Ofici. San Anton kalean estreinatzeko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera oean eta jantzia. Trasteleku eta patioa ere baditu. 665 71 77 96

Ofici. Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 euro. 659 53 87 62

Salou (Tarragona). Etxebizitza salgai edo errentan. Erdigunean. Hondartzatik 150 metroa. Kanpoaldea eta hegoaldea begira. Sukaldea-egongela, bi logela bikoitz horma-armairuekin, komuna eta 15 metroko terraza. Aire girotsa (hotza eta beroa). Jantzia. Leho bikoitzak. Bi igogailu, igerileku, aparkalekuak. Deitu 665 70 28 06 zenbakira.

Benicalo (Castello). Etxebizitza ematen da errentan hondartzako kaleen lerroan. Zortzi piso-naren dako leku. Hornitza eta erosoa. 620 41 97 53 edo 964 46 50 05

Conil (Cadi). Hiru apartamendu alotzak dira Conilen (Cadizen). Garajearekin. Prezio bereziak uztalean. 656 73 34 57

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan udarako, hamabostaldiak edo ikasturterako. Hiru logela, guztiz jantzia. Hondartzatik gerto. 669 42 94 15

Durango. Pisua alokagai. 625 70 36 88

